

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Abenduak 18  
433. zenb.



SANTAMASAK 98





**Gabonak heldu dira  
urtero bezela  
ondo pasatutzeko  
egunak direla  
etxekoen artean da  
giro epela  
ta urtea danok ondo  
hasi zazutela.**

**Zuen zerbitzura**



**ARRASATEKO UDALA**





*Santamas baserritarren  
Festa gendulako  
Eurek antolatuta  
Euren gozurako  
Obitura onetara  
Gertura beharko  
Espero degu ondo  
dezula pasako.*

*“PPkoei eskatuko nizuke ahalegin txiki bat egin dezazuen aurrean dagoena zuen mailan dagoela uler dezazuen, bestela inoiz ez gara inora iritsiko”*

**Xabier Zubizarreta**



**ARRASATE KOMUNIKABIDEAK**  
**ARRASATE PRESS**  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Mainer Osa. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26)  
**Diseinua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemakileak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaxo Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirremuela, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Mañide Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karnele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreira. **Banaketaren arduraduna:** Jasone Mendizabai-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoei konparatuta:** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

Azaa: Leire Zubikarai.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

**1.200**

**pintxo banatuko dira 22an hemengo okelarekin.**

Santo Tomas egunean 1.200 pintxo banatuko dira doan Biteri parkinean, Pirinioetako txahala bat hamabi ordu burduntzian erre eta gero. Txahala astelehenean hil zen, Zubillagako hiltzean. Karlos Ibarrondo Elorrioko Gazeta auzoko baserritarrak erreko du bigantxa.

ITURRI ONETIK

**DVk ordezkari-tza irekiko du Arrasaten**

Diario Vasco egunkariak Deba Garairako ordezkari-tza irekiko du otsailaren 14an, Uarkapeko etxeetan. Ordezkari-tza berrian Deba Garaiko berriemaileak arituko dira: Arrasateko Kepa OIlden, Bergarako Juan Antonio Miguera, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Joxebi Ramos eta Oñatiko Marian Gonzalez. Denen artean lantzen dituzte Deba Garaiko herrietako kronikak eta, iaiztik hona, Bertan izeneko hilabetekaria.

Ordezkari-tza Arrasaten ezartzearekin DVk bi helburu bete nahi ditu: batetik, urrats bat gehiago egitea egunkariaren zabalkundean eta bestetik, ondo kokatzea euskarazko herri komunikabideak indartsuen dauden lurraldean. Hurrengo pausoak ere norabide horretan etor litezke.



# 18 ostirala

■ ZINEA

*Los Miserables*, Alai Zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ KONTZERTUA  
POL-POLEN

Bergarako Pol-Pol tabernan kontzertua izango da "Egingo dugu" lelopean. Gaueko 22:00etatik aurrera, Elgoibarko Arima Beltza eta Berako SUP!, Petti eta Borrokon taldeak arituko dira.

■ SUDC-EN BATZARRA  
ETA AFARIA

Arratsaldean batzarra egin ostean, Arrasateko elkarte gastronomikoetako ordezkariak afaria izango dute Danok Bat elkartearen.

# 19 larunbata

■ ZINEA

*Las Aventuras del Principe Valiente*, 17:00etan eta *Crimen Perfecto* 19:30etan eta 22:00etan, Alai Zineman.

■ SANTAMASAK 98

• 09:00etatik 14:00etara, Gabonetako III. Banakako Frontenis txapelketa, Musakolako kiroldegian.

• 10:00etan, Santamasetako XIX. Pilota txapelketa finalak, Iturripeko kiroldegian.

• 17:00etan, Euskal Liburu eta Diskoen Azoka irekiko da Sebero Altubeko plazan, abenduaren 23a arte.

• 18:00etatik 20:00etara, Arte Martzialen IV. Gala egingo da, Musakolako Kiroldegian.

• 18:30etan, Itsuen Irakurketa eta Lanerako Materialen Erakusketa irekiko da Amaia Antzokiko sarreran, Arrasateko Oncek antolatuta. 19:30etan, eta antzokian bertan, Onceko Alaia abesbatza-aren emanaldia hasiko da, Ferrerias kalean ireki berri duten egoitza inauguratzeko.

■ FRENTE ATLETICOREN  
AURKAKO KONTZERTUA

Iskanbila, Des-Kontrol eta Vigoko Kelttoi! taldeak arituko dira 22:00etatik aurrera, Gaztetxean. 500 pta. Bonba Taldiek antolatuta.

■ BILERA MUSAKOLAN

Iturripeko eta Musakolako futbol, tenis eta squasheko jokalekuak eta pilotalekuak alokatu nahi dituztenek bilera egingo dute bi kiroldegietako arduradunekin. Bilerak goizeko 11:00etan izango da, Musakolako kiroldegian.

■ ABESBATZA  
AITA MENNIN

Easo abesbatza Eskolaniak emanaldia eskainiko du Aita Menni ospitalean. Saioa arratsaldeko 16:30etan izango da, ospitaleko Ekintza Aretoan.

# 20 igandea

■ ZINEA

*Las Aventuras del Principe Valiente*, 17:00etan (400 pta.n.) eta *Crimen Perfecto* 19:30etan eta 22:00etan, Alai Zineman.

■ SANTAMASAK 98

• 10:00etan, X. Santamas Xake Txapelketa, Corazon de Encina elkartearen.

• 10:30etan, herriko kaleetan zehar umeen Santamas XX. Krosa arituko da. Koadrilaren arteko krosa, 12:00etan hasiko da.

• 17:00etan, Gorakada antzerki taldeak *Txano Gorritxo* txotxongilo emanaldia aurkeztuko du, Amaia antzokian. Sarrera, 300 pta.

# 21 astelehena

■ ZINEA

*Crimen Perfecto*, Alai Zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ SANTAMASAK 98

• 12:00etan, eskaparate lehiaketaren sari banaketa.

• 19:00etan, *Mondragon en fiestas* filmaren aurkezpena eta proiektzioa, Amaia antzokian. 20:00etan berriz ere eskainiko da.

• 19:00etan, etxafleroak eta Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsaren irteera.

19:00etan, Portaloian, Txerriaren aurkezpena eta zozketaren txartel salmenta hasiko da.

• 19:00etan, Incansables fanfarrearen kalejira.

• 20:00etan, Udaletxeko Bilkura Aretoan, txistu kontzertua eskainiko dute Arrasate Musikaleko Txistulari Bandako gazteek.

• 23:00etan, Joselu Anaiak taldearen dantzaldia, herriko plazan.

■ GABONAK ITURBIDEN

Gasteizko Tunaren saioa antolatu dute Iturbide egoitzan Gabonetarako ekintzen barruan. Honekin batera, txokolata eta txurroak jateko aukera izango da. Senitarte-

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

• BURDINAZKO ATEAK  
• ETA PERTSIANAK.  
• AUTOMATISMOAK.  
• KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo  
handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



koek ere zozketa izango dute.

■ **DANTZA ERAKUSKETA**

Dantza erakusketa Mon-dragon Hotelean, gaueko 12:00etatik aurrera.

■ **SANTAMASAK AITA MENNIN**

Goizeko 11:00etan ospa-tuko dituzte Santamasak Aita Menni ospitalean. Erabilera askotariko aretoan izango da ekitaldia. 17:00etan, berriz, Julian Auzmendik Kutxa Fun-dazioko ikusentzunezko saioa aurkeztuko du.

**22**  
**asteartea**

■ **ZINEA**

*Crimen Perfecto*, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ **SANTAMASAK 98**

• 09:30etan, Arrasateko Gaiteroen eta Txistularien diana.

• 10:00etatik aurrera, Biteri parkinean fruitu eta barazki erakusketa.

• 10:00etatik aurrera, Azoka plazan, Euskal Herrian eskuz egindako gazten lehiaketa eta hegaztien erakusketa.

• 10:00etatik aurrera, Lau Bide plazan, ganadu erakus-keta eta nekazaritza makina-riaren feria.

• 12:00etan, Lau Bide pla-zan, Piriniar arrazako ganadu enkantea.

• 10:30etatik aurrera, Jokin Zaitegi plazan, eskulanean era-kusketa.

• 11:00etan, kalejira Arra-sateko Lore Gazteak dantza taldea, Arrasateko Gaitero eta trikitiliariak, Iturengo Ttuntturroak eta Incansable fanfa-rrearekin.

• 11:30etan, Biteri parki-nean, fruitu, barazki eta gaz-ta lehiaketaren sari banaketa.

• 12:00etatik aurrera, Biteri parkinean, txahal errearen pintxoak salgai.

• 12:30etan, Zaldibar Pilo-talekuan, aizkolari, harrijaso-tzaile eta jungurien erakuske-ta. Aizkolariak: Larretxea, Olasagasti, Mindegia eta Peña-garikano izango dira. Harri-jasotzaileak Zelai, Izeta eta Goenatxo II. Jungurian, berriz, Euskal Herriko txapelduna den Lapazaran arituko da.

• 13:30etan, herriko pla-zan, Arrasateko Lore Gazte-ak taldearen dantza saioa.

• 18:30etan, Incansables taldearen kalejira.

• 19:00etan, herriko pla-zan, Txerri dantza eta Larrain dantza.

• 19:30etan, Amaia antzo-kian, Sebastian Lizaso, Ando-ni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Aitor Mendi-luze eta Jokin Sorozabal bert-solarien saioa. Jon Sarasua izango da gai jartzailea.

• 23:00etan, Gaubela tal-dearen dantzaldia, herriko pla-zan.

• 24:00etan, txerriaren zoz-keta, herriko plazan.

■ **AMNISTIAREN ALDE**

Amnistiaren Aldeko Batzordeak herri bazkaria antolatuko du "Euskal Preso guz-tiak Euskal Herrira orain!" lelopean.

**23**  
**asteazkena**

■ **ZINEA**

*Crimen Perfecto*, Alai Zineman, 19:30etan eta 21:30etan (ikuslearen eguna).

■ **SANTAMASAK 98**

• 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan, Amaia antzokian, *Mondragon en Fiestas* film laburraren emanaldia.

■ **OPARI BANAKETA**

Udalak Gabonetako opa-riak banatuko ditu Iturbide egoitzan. Ekitaldia eguerdiko 12:30etan izango da.

**24**  
**osteguna**

■ **SANTAMASAK 98**

• 12:00etan, Olentzero, Txoronpio eta Txoronpia Arrasateko lagunen irteera.

Herrian zehar ibiliko dira, Olentzerorentzako gutunak jasotzen.

• 18:00etan, Olentzeroren irteera: Zaldibar, Portaloia, Olarte, Zarugalde, Udala pla-za, San Andres, Portaloia eta Herriko plaza.

• 19:30etan, herriko pla-zan, Olentzero agurtzeko mutil dantza eta herri dantza dan-tzatuko dira.

■ **KALE AGERRALDIA**

Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta, kale age-rraldia egingo da Olentzero-ren ostean "Euskal Preso Guz-tiak Euskal Herrira Orain!" lelopean.

■ **MUSIKA ITURBIDEN**

Goikobalu abesbatzak emanaldia eskainiko du Itur-bide egoitzan. Saioa arratsal-deko 18:00etan izango da.

■ **LA MERCED IKASTETXKO JAIOTZA**

Olentzero egunean, La Merced ikastetxeko hurrek jaiotza bizia aterako dute kale-rra. 11:00etan jaitziko dute Obenerrekako aldapatik zehar eta herrian buelta emango dute, herriko plazara heldu arte.

■ **JAIALDIA GAZTETXEAN**

Amnistiaren Aldeko Batzordeak "Euskal Preso Guz-tiak Euskal Herriera orain!" lelopean jaialdia egin-go du Gaztetxean.

**Uziarte** *Ondo pasan Santamasetan*  
**SPORT**  
Olarte, 6 • Tfnoa: 943 79 27 78 • ARRASATE

 **AKELARRE**  
• Etxean egindako turroiak • Girlatxea  
• Polboroiak • Trufak  
• Mazapanak • Gabonetako tartak  
Zarugalde, 54 Tel.: 943 77 00 71



# Euskarak behar du horrelako kanpainarik?

Euskararen Kontseiluak "XXI. Mendeko Akordioa. Bai Euskarari" antolatu du.



**Larraitx Arriolabengoa**  
(23 urte)  
Ikaslea

Baietz uste dut. Horrelako zenbat eta gehiago antolatu, hobeto.



**Amaia Kortabarria**  
(63 urte)  
Saltzailea

Bai, jendeak kontzientzia har dezan. Gurean beti egin da euskaraz, baina kalean oso lagata ikusten dut.



**Pablo Gomez**  
(62 urte)  
Erretiratua

Hitz egiten da euskaraz, baina gehiago egin liteke. Nire alabak lanean dabilta eta euskara ikasten.



**Pedro Donoso**  
(55 urte)  
Erretiratua

Nire ustez, bai. Logikoa da.



**Juan Ignazio Romatezabala**  
(44 urte)  
Langilea

Baietz uste dut. Beharrezkoa da. Pentsatzen dut jende gehiagok egingo duela euskara horren ondorioz.



**Mari Jurado**  
(30 urte)  
Langilea

Bai, baina ikasi nahi duenak ikasiko du. Ni hiru urtez ibili naiz ikasten, baina oraindik ezin arrankaturik nabil.



**Ane Irazabal**  
(14 urte)  
Ikaslea

Bai, euskara indartu behar delako. Askok ez dute hitz egiten eta hau ondo dator, bulzagarri moduan.



**Mikel Muxika**  
(14 urte)  
Ikaslea

Bai, bestela espainolek kendu egingo digute gure hizkuntza. Ondo etorriko dira euskaltegiak eta, indartzeko.

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A

**ONDO PASAU  
SANTAMAS EGUNA!**

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

**ARAOTZ Merenderua**

Ingurune zoragarrian  
lagun artean  
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI  
Tel.: 943 78 35 26





ONDO PASAU SANTAMAS  
JAIKETAN!

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON





- Larruzko artikulua
- Bisuteria
- Opariak
- Edertasun kabinetea
- Solariuma
- Kosmetika

**Marka desberdinetako  
aurpegiko kosmetika**

**Gabon otarrak prestatzen dira!**

Kanpandorpea, 4 • Tel.: 943 79 12 19 ARRASATE



# Haurtxoa

Jaioberrientzako  
jantzi eta  
osagarri guztiak:  
aulkiak,  
jostailuak,  
sehaskak,...



**Santamas jai zoriontsuak pasa itzazue**

Arrasate pasealekua, 4 • Tel.: 943 79 14 90 • ARRASATE



astea bi hitzetan

■ **"Bernar" berriz sarituta**

Jon Anduezak, Aitor Agorriak eta Xabier Alberdik egin duten "Bernar" filma Lekeitioko Zine eta Bideo lehiaketan saritu zuten. Profesional mailako argumetuzko filmen artean lehenengo saria irabazi zuen. Aurretik ere lortu izan ditu beste sari batzuk.

■ **Egingo dugu jaia**

Arrasateko Egingo Dugu plataformak jaia antolatu zuen larunbaterako. Urtarrilean plazaratuko den Gara egunkariaren alde dirua lor-

tzeko ekimena izan zen jai egun hau. Bide batez, Eginen orde zatorren egunkari berriaren aldeko mugimendua kalera ateratzea zen asmoa. Diru eskatzea, gazteentzako txokolatada, helduentzako txistorrada eta liburu eta zinta azoka egin ziren. Gabonak bitartean 23 milioi pezeta lortu nahi dute.

■ **Lorcaren omenez**

Garcia Lorca jaio zeneko 100. urteurrena ospatzeko, jaialdi flamenkoa ospatu zuen joan den larunbatean Al-Andalusek. Jose de la Pica, Manuel Martin eta

Paco el Guerra kantuan eta Antonio Gutierrez eta Juanma Maroto gitarran aritu ziren arratsalde partean.

■ **Euskara epaitegietan**

EHE taldeak deituta, kale agerraldia izan zen Seberon ostiralean. Asteazkenean talde honetako zortzi kide epaitu dituzte, epaiketetan euskara erabiltzeko eskubidea aldarrikatzeagatik. Talde honek salatzen duenez, nahiz eta gaur egun euskara gaztelaniarekin batera ofiziala izan, ez da errespetatzen, erakunde gehienetan ez baita euskara erabiltzen.

“

Izenak besterik adierazten badu ere, Consumer euskal aldizkari bat da, Eroski Fundazioak argitaratua, euskaraz eta gaztelaniaz (baita valentzieraz ere) idatzia eta kontsumo gaien analisiak egiten dituen. Eta zelango analisiak! CD eramangarrien konparazio xehetuak, bidaiei buruzko erreportajeak, Gobernu Kanpoko Erakundeak... Lege aholkularitza luxuzkoa da. Eta aholku praktikoek oso zentzuzkoak dirudite, sakelarentzat eta baita urdailarentzat ere”.

**GHJGH**

*Cinco Dias, 1998.12.14*



**GIZA ESKUBIDEEN ALDE**

Giza Eskubideak aldarrikatu zireneko 50. urteurrena ospatu zen ostegun hainbat ekitaldiren bitartez. Goiz partean, San Viator ikastolako neska-mutilak kalera atera ziren eta Seberoko zuhaitzetan Giza Eskubideen aldarrikapena osatzen duten 30 artikulua zintzilikatu zituzten. Euskal presoek hurbiltzea eskatzeko ere egin ziren hainbat agerraldi.

**UNZUETA**  
J A T E T X E A

- 1) Babarrunak (aza eta odolostearekin)
- 2) Bakailao frijitua edo bildots menestra
- 3) Postrea+edaria

**2.800+7% BEZ**

• Ospakizunak  
• Jaunartzeak eta bataioak

Zabola auzoa. ARAMAIO.  
Tel.: 945 44 50 95

**PEÑAKOBA**

Zarugalde, 46  
Tel.Faxa: 943 79 29 93  
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7  
Tel.: 943 78 05 60  
OÑATI

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA  
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

**ARROGOI**  
**T A B E R N A**

*Ondo pasa Santamasetan!*

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40



# Hogei herritar deserrian eta espetxeetan

Arrasateko 20 herritar daude edo deserrian edo Espainiako eta Frantziako espetxeetan, ETAko ekintzaile edo laguntzaile izatearen akusaziopean.

Horietatik bost herritik kan-

po bizi dira. Gainerako hamabostak, aldiz, Espainiako eta Frantziako espetxeetan. Kode Penala beteko balitz, hauetako bi kalean egon beharko liriteke: Jon Agirre eta Pedro Guri-

di, zigorraren hiru laurdenak bete dituztelako

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu, presoek Euskal Herriratzea lortzeko. Santo

Tomas egunean herri bazkaria, Olentzero ostean kale agerraldia eta Urtezahar egunean mobilizazioak. Peixotoren eta Migel Angel Piedehierroren argazkirik ez dugu lortzerik izan.



**Jon Agirre**  
Tenerife



**Axun Arana**  
Venezuela



**Josu Arkauz**  
Alcala de Henares



**J. M. Azkargorta**  
Martutene



**Eugenio Barrutiabengoa**  
Venezuela



**Goio Etxabe**  
Ocaña



**Joseba Garitaonandia**  
Aranjuez



**J. Ignacio Gaztañaga**  
Granada



**Pedro Guridi**  
Langraitz



**Angel Iturbe**  
desagertuta



**Enrike Letona**  
Murtzia



**Pilar Mondragon**  
Fleury



**Unai Parot**  
Valdemoro



**Arantxa Sasiain**  
Fleury



**Josu Uribetxebarria**  
Valdemoro



**Jose Gabriel Urizar**  
Tenerife



**Kepa Urria**  
P. de Santa Maria



**Jesus Mari Zabarte**  
Las Palmas de G. C.

**GAMMA**

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta  
Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 943 79 51 25

**OPEL**

**GARAJE NORTE**

*Marka guztien konponketa eta zerbitzu osoa*

BASABE POLIGONOA, A-13 PABILIOIA  
Tel.: 943 79 62 65/943 79 20 86  
Faxa: 943 77 16 20

AGENTZIA OFIZIALA

**OPIL OKINDEGIA**

**DONIBANE-PAPVR**

**GOZOTEGIA**

*Hurbil zaitetz eta dastatu gure ogi eta pastel bereziak!*

Inazio Zuloaga, 2 • Tel.: 943 79 80 50 • ARRASATE

Urte berria, "Look" berria!

**ZATOZ!**

Maalako Arrabala, 21-B  
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

**JADE**  
ILEAPAINDEGIA



# Udalbatza presoan eskubideen alde

Astelehenean aurtengo azken osoko bilkura egin zen udalbatzean. Aspaldiko partez, zinegotzi guztiak egon ziren eta gutzira 21 puntu landu eta 20 onartu zituzten. Tartean, euskal presoan egoeraren inguruko hiru mozio zeuden. Bata, Senideak elkarteak aurkeztu zuen eta beste biak, PSOEk eta PPK.

Daturik aipagarriena izan zen Senideak elkarteak aurkeztutako mozioa HB, EAJ, EB eta EAren botoekin onartu zela. Gai askorekin ez bezala, kasu honetan, hirutariko gobernua apurtu eta EAJ eta

EA, HBrekin eta EBrekin batu ziren presoan eskubideak defendatzeko. PSOEko lau zinegotziak abstenitu egin ziren eta PPKko Antonio Palaciosek kontra bozkatu zuen. Era berean, PSOEk eta PPK aurkeztutako mozio alternatiboak bertan behera gelditu ziren, EAJ, EB eta EAren abstentzioarekin eta HBren kontrako botoekin.

Honela bada, Arrasateko udalbatzak euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara ekartzea eskatuko du, zigorraren hiru laurdenak beteta

dituzten presoak eta gaixotasun sendaezinak dituztenak askatzea, abenduaren 31n herri bakoitzean izango diren mobilizazio ixiletan parte hartzea eta sakabana-ketak iraun bitartean, presoan senideei diru laguntzak emateko aukera ere aztertzea. Erabakitakoa Espainiako gobernuak Barne Ministerioari eta Frantziako gobernuak Justizia Ministeritzari jakinaraziko zaie. Orobat Gasteizko Legebiltzarrari eta Iruñeko Parlamentuari.



Osoko Bilkura luzea izan zen astelehenekoa. Ia bi orduko iraupena izan zuen.

## Besteak:

### KALE IZEN BERRIAK

Herriko zenbait kale edo guneri izena jartzea onartu zen. A-20an sortuko den kale bati, Osiñaga izena jarriko zaio, Besteari, Zubiko. Garagartza auzoan eraikiko den kaleari, Istizabal-Garagartza Auzoa izena jarriko zaio eta udal parkinarean gaineko plaza-ri, Laubide Plaza.

### SAIHESBIDEA

Onetsi zen proiektuaren arabera, bide bat egingo da Antoña baserria zegoen ingurutik eta institutuaren atzealdetik, Santa Teresa-ra joango dena. Horri esker, oraingo bidea itxi eta kiroldegia Mojategiraino zabaldu ahal izango da.

### EUSKAL FONDOA

Mitch urakanak eragindako kalteak ikusita, Ertamerikari laguntza emateko eskaera egin zuen elkarte honek. Besteak beste, herrialde harekiko konpromiso iraunkorra ezartzeko ahaleginak egitea eskatu zion udalbatzari.



# SIKOL

**Gabon hauetan  
oparirik erosoan  
eta ederrenak egiteko,  
Sikol-en duzu aukera.**

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

Olarte, 31 • ARRASATE • TEL.: 943 79 89 32





USTEAK USTE

Joserra  
Etxebarria

**B** iok Zigorrolakoak ginen, adin batekoak eta itxuraz ere antzekoak. Elkarrekin ibiltzen ginen.

Gaztetxoak ginela, bera fraidekume joan zen eta ni

abadekume. Urte batzuen ostean, bueltan ginen berriro etxean. Estudiante tunante joan zen gero Salamancara, Psikologia ikastera. SFX ikastolan ibili zen aldi batez psikologo gisa.

Aspertu zen arte. "Venezuelara noa", esan zidan egun batean tupustean. Hogei bat urte izango dira joan zela.

Azkenengoz, banku batean omen zebilen lanen.

Desagertu zen arte. Orain hamar bat urte, bere familiak galdu egin zuen Joserraren arrastoa. Urtea joan eta urtea etorri eta inork ez zekien ezer. Desagertutat jo zuten.

Azaldu den arte. Aste honetan, Joserrak telefonoz egin du dei eta bizi dela jakinarazi du. Bizi da eta ondo dago. Familia, pozez zorutzen. Lagunak ere bai. Hauxe izan dugu aurtengo gabonsaria. Bejondeiala, Joserra!

Joxe Aranzabal



KUIren lau aditzak

Jon Sarasau \*

**M** Uren baitan sortu den Kooperatiben Unibertsitate Institutuaren egitekoak sustantibo bat dauka: "kooperazioaren baloreak eta bereziki Arrasateko kooperatiben esperientziari dagozkionak". Eta lau aditz.

Lehenengo aditza: ezagutu. Sarritan gertatzen da hurrean dugun mamia ez dugula ezagutzen. Kanpokoek ere nahikoa seinatu digute kooperatiba arizmendiaren interesa, mundu osotik bisita mordoa bat dugu urtero, atzerriko unibertsitate batzuetan Marxen parean ikasten dute Arizmendiarieta. Eta gutxienekoa da, gainera, kanpokoek zer dioten. Kooperatiben sorreran pertsonari buruzko pentsamendu sozial sakon eta indartsua dago. Benetako altxorra, gizateriaren geroaz kezkatuta dagoen edonorentzat. Bi iturri ditugu pentsamenduaren esperientzia eta esperientziaren pentsamendua ezagutzeko. Bata, hone-

taz idatzi den bibliografia guztia, mundu mailako gaurko puntako ikerketa sozialekin kontrastatuz. Bigarren iturria kooperatiben esperientziako ahotsek osatzen dute. Esperientzia kooperatiboaren ahotsik gehienak ez daude liburuetan. Atzoko eta gaurko protagonisten iritzi, kritika, kezka eta planteamentuak jasotzea da gure lanaren abiapuntuetako bat.

Bigarren aditza: ikertu. Gaiari buruzko tesi, tesina, ikerketa eta azterketak bultzatu. Gorago aipatu ditugun iturri horietatik abiatuta, hurrengo bi aditzetara (gaurkotzera eta hedatzera) salto egiteko ikerketa beharrezkoa da. Hainbat gai eta arlo ditugu ikertzeko. Bi gauza egin behar ditugu: gure iker-lerroak finkatu, lehentasunak argituz, eta ikerlari potentzialak martxan jarri.

Hirugarren aditza: gaurkotu. Kooperatibismoaren testuinguru berri, funtzio, desafio eta helburuei buruzko gogoeta sistematizatu. Hau da beste lan guztien bizkarrezurra. Gaurko mundu-errealitatea etengabe ari da bere pentsa-

tzeko modua bakarra eta bere baloreak aplikatzen, eragiten eta uniformatzen. Errealitate horren baitan, hain frutu bereziak eman dituen lankidetzaren pentsamendua gaurkotu egin behar da, sakonduz, sistematikoki. Eta hau guztia, ez teoriarik gelditzeko, eztabaidarako eta aplikaziorako zerbitzu moduan baizik.

Laugarren aditza: hedatu. Kooperatiben esperientziaren baloreak hedatzeko bost esparru bereiztu ditugu, KUIren gertukoenetik zabalenera: MU, hezkuntza osoa, kooperatiben gorputz soziala, Euskal Herria, eta nazioartea. MUn kooperazioaren baloreen inguruko formazioa kudeatu ikasle, irakasle eta langileen artean. Gauza bertsua eskualdeko lehen eta bigarren hezkuntza-kooperatibetan. Kooperatiben gorputz sozialean eztabaida piztu. Euskal Herriko antolaketa sozial, unibertsitate, erakunde eta mugimenduekin gaiari buruzko elkarrikerketa bultzatu. Nazioartean, eta bereziki beste esperientzia kooperatibo eta komunitarioekin, harreman bide eraginkorrak antolatatu.

Aditza ordena, jakina, ez da kasualitatea. Hedatzeko, gaurkotu. Gaurkotzeko, ikertu. Ikertzeko, ezagutu eta bildu. Ohartuko zineten helburuez soilik idatzi dudala, eta ez dudala mamirik azaldu. Baina gauza bakoitza bere unean eta bere gunean.

\* KUIko teknikaria

“ Hedatzeko, gaurkotu. Gaurkotzeko, ikertu. Ikertzeko, ezagutu eta bildu. ”



KONTRATAK  
IRYROK S.L.  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis  
Tel.: 943 77 09 92  
Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea  
Tel.: 943 78 21 82  
OÑATI





*Arrasatear guztioi  
Santamas eta Gabon jai  
zoriontsuak  
opa dizkizuegu!*



Erdiko Kale, 14 • Tel.: 943 79 46 94 • ARRASATE



# KANPAZAR FIAT

Alfa Romeo 

SUZUKI 



Alfa Romeo 166

Jai hauetan  
zorionak  
opa dizkizuegu

Tailerra: Bizkaia Etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 41 98  
Erakusketa: Araba Etorbidea, 32 • Tel.: 943 79 77 66





## Txikia bai, baina eskasa ez!

**T**otem eta Sokoakoak taldeen artean jokaturako norgehiagokan atera genuen asteko irudia. Totem taldeko atezaina baloia ukabilez urruntzen harrapatu genuen. Ia-ia Sokoakoak taldeko Juleni sudurra kendu zion. Baina atezaina argi ibili zen eta ez zen ezer ere gertatu. Beno, bai! Ez zen gol izan.

### Laburrak

#### ■ URTEKO AZKEN JARDUNALDIA

Hasiera batean aurtengo azken jardunaldia 26an eta 27an jokatu behar bazen ere, azkenean ez da horrela izango. Abenduaren 26an *Bai Euskarari* kanpainaren ekitaldi erraldoia dela eta, Bonba Taldiek Euskararen Erakundearen Kontseiluarekin bat egin nahi izan du. Hori dela

eta, asteburu honetan jokatu da aurtengo azken jardunaldia.

#### ■ LEHEN FASEKO EKUADORRA

Zortzigarren jardunaldian lehen faseko ekuadorrean egongo gara. Hori dela eta, nolabaiteko balantzea egiten has gaitzke. Multzoz multzo, A taldean Orlando Pira-

tas, AC Surkos, Pepelus eta Lontxo Taberna dira momentuz txapelketan ondoen sailkatuak daudenak. B taldean, berriz, taldeen arteko berdintasuna nagusi izan arren, lehenengoko zazpiek tarte nabaria egin dute gainontzeko taldeekiko. D taldean, ostera, You Know, Dribling, EPEH eta Sokoakoak dira nagusi.

#### ■ GOL GUTXI

Zenbakiak egin eta gero, zazpigarren jardunaldian gol gutxi sartu zirela baieztatzeko gai gara. Guztira 193 gol sartu ziren. B taldekoek sartu zituzten gol gehien, 71, hain zuzen ere. A taldekoek, berriz, 70 lortu zituzten eta D taldekoek, 52. Taldeei dagokienez, B taldeko Naranja Mecanica izan zen goleatzaile nagusia, 15 golekin.


Ondo pasa jaietan!

**BENGOA**

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

Zerkaosteta, 5  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 28 85

**DISCO-BAR**



**Disco-Bar Gurelekuk  
GABON JAI ZORIONTSUAK  
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRAT.	7	7	0	0	43	12	14
AC SURKOS	7	6	1	0	44	23	13
PEPELUS	7	6	1	0	29	15	13
LONTXO TABERNA	7	5	2	0	37	12	12
INSERT COIN	7	5	0	2	20	20	10
XHASSS UGARTE	7	4	1	2	43	29	9
ALDIBI	7	4	0	3	39	13	8
LEYA	7	4	0	3	18	19	7
KOM. ALPARGATA	7	3	1	3	28	20	6
KE OXTIAS	7	3	0	4	27	19	6
REX 23	7	2	0	5	20	25	4
BALON ROJO	7	1	2	4	12	36	4
SERENGETI HC	7	2	0	5	14	31	4
SAUKE. SCREAM	7	2	0	5	16	23	4
BUKANAK	7	2	0	5	16	43	4
ALAI GOZOKIAK	7	1	1	5	21	35	3
MAKAI	7	1	0	6	14	39	2
ROTOR DE BOLBO.	7	0	1	6	14	41	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
AURRERA BOLIE	7	7	0	0	35	9	14
TXANTXIKU KIR.	7	6	0	1	60	12	12
KKJAURI	7	5	2	0	34	15	12
IRATI STS	7	5	1	1	39	18	11
NARANJA MEC.	7	5	1	1	55	27	11
LOS HEREDIA	7	5	1	1	21	15	11
GARAJE OSKAR	7	5	0	2	36	18	10
KOKA JUNIORS	7	3	1	3	22	25	7
AT CELAYA	7	3	1	3	21	28	7
DIEGO ANTONIO	7	2	2	3	18	29	6
DKB	7	2	1	4	29	28	5
BORROCK & ROLL	7	2	1	4	20	26	5
ZOTZ	7	2	1	4	31	34	4
POTROSORRI	7	2	0	5	15	52	4
LAUTERBRUNENN	7	0	3	4	21	37	3
PUB ARROGOI	7	1	0	6	7	26	2
ETXE MOBEL	7	0	1	6	14	51	1
ATERPE KAFETEGI.	7	0	1	6	19	50	1

## Emaitzak

### A TALDEA

Bukanak 6 - Rotor Bolbogrado 5  
Lontxo Taberna 3 - AC Surkos 3  
Insert Coin 3 - Kom. Alpargat 1  
Sau. Scream 2 - Serengeti HC 1  
Pepelus 6 - Makai 4  
Balon Rojo 0 - Aldibi 10  
Rex 23 3 - Alai Gozokiak 5  
Orlando Pir. 6 - Xhasss Ugarte 5  
Ke Oxtias!!! 3 - Leya 4

### B TALDEA

Borrock & Roll 0 - KK Jauri 1  
DKB 2 - Koka Juniors 3  
Los Heredia 3 - Diego Antonio 1  
Aurrera Bolie 7 - Zotz 0  
Irati STS 1 - Pub Arrogio 0  
Aterpe Kafetegia 6 - AT Celaya 7  
Etxe Mobil 1 - Txantxiku Kir. 11  
Garaje Oskar 5 - Lauterbrunnen 4  
Naranja Mec. 15 - Potrosorri 4

### D TALDEA

Cons. Luso 0 - Kamasutra 12  
Potroak 3 - You Know 6  
Decadencia 1 - Bar Nuevo 1  
Aita Menni 2010 - Eusko Label 1  
Betraye 2 - Jotakabau 3  
Fraguel Gol 6 - Branka Taberna 5  
Sokoakoak 1 - Totem 3  
EPEH 4 - Jako al Rey 3

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	6	6	0	0	34	11	12
DRIBLING	6	5	1	0	26	11	11
EPEH	7	4	2	1	27	20	10
SOKOAKOAK	7	5	0	2	28	22	10
AITA MENNI 2010	6	4	1	1	25	17	9
JOTAKABAU	7	4	1	2	15	15	9
POTROAK	6	4	0	2	26	15	8
BRANKA TABERNA	6	2	2	2	27	25	6
DECADENCIA	7	2	2	3	16	13	6
BAR NUEVO	6	2	2	2	21	21	6
FRAGEL GOL	7	3	1	3	20	20	6
TOTEM	7	3	0	4	19	19	6
KAMASUTRA	7	2	1	4	28	25	5
JAKO AL REY	7	1	2	4	22	25	4
BETRAYER	6	1	1	4	18	25	3
CONSTRUC. LUSO	7	0	0	7	9	46	0
EUSKO LABEL	7	0	0	7	17	46	0

## Norgehiagoka interesgarriak

### Larunbata 19

12:00etan Aurrera Bolie - Txantxiku Kirolak  
13:00etan Orlando Piratas - AC Surkos  
17:00etan Dribling - EPEH

### Igandea, 20

11:00etan Sokoakoak - You Know  
12:00etan Los Heredia - Komando Alpargat



## Hurrengo partidak

### Abenduak 19, larunbata

**Zaldibar**  
09:50 Gar. Oskar - Koka Junior.  
11:00 Bukanak - Balon Rojo  
12:00 Aurrera Bol. - Txantxi.Kir.  
13:00 Orlando Pir. - AC Surkos  
14:00 Potroak - Faguel Gol  
15:00 DKB - Etxe Mobil  
16:00 Lontxo taberna - Rex 23  
17:00 Dribling - EPEH  
18:00 KKJauri - Diego Antonio  
19:00 Insert coin - Ke Oxtias !

### Iturripe A

11:00 Potrosorri - Irati STS  
12:00 AT Celaya - Zotz  
13:00 Sauleku Scre. - Alai Gozo.  
14:00 Totem - Eusko Label  
15:00 Leya - Pepelus  
16:00 Cons. Luso - Betraye

### Iturripe B

13:00 JakoalRey - Aita Menni  
14:00 Aldibi - Serengeti HC  
15:00 Jotakabau - Bar Nuevo  
16:00 Decaden. - Branka Tab.

### Abenduak 20, igandea

**Zaldibar**  
09:50 Xhasss - Makai  
11:00 Sokoakoak - You Know  
12:00 Heredia - Naranja Mec.  
13:00 Rotor. - Kom. Alpargat

### Atsedena:


**B Taldea:**  
Aterpe Kafe., Lauterbrunnen  
**D taldea:**  
Kamasutra

# BOLIÑETE


OILASKO ERRETEGIA  
Bertan jateko edo eramateko.

Santamas eta Gabon zorionsuak opa dizkie bere bezeroei.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91







# **BEREYA** SAL

## elektrizitatea

• ALARMAK. TB. SATELITEAK

• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

• ANTENA KOLEKTIBOAK


• PROIEKTUAK ETA GARAPENAK

• SOINU INSTALAZIOAK

• KONPONKETAK OROKORREAN

• TB ZERBITZU TEKNIKOAK

• ATEZAIN AUTOMATIKOAK



Erdiko kale, 50 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 79 / Mug.: 908 57 90 24 / Faxe: 943 77 15 34



## A. Zabaletaren omenez

Bonba Taldiek autobusa jarriko du datorren igandean Aitor Zabaletaren omenez egingo den kale agerraldira joateko. Goizeko 10:00etan aterako da Garibai kaletik eguerdiko 12:00etan Alderdi Ederrera heltzeko.

Aitor Zabaleta lelopean abiatuko da agerraldi ixila. Bittor Arriaran, Bonba Taldieko kideak adierazi digunez "Aitorrek omenaldia merezi du eta denok joan beharra dugu agerraldira. Elkarrekin gaudela eta horrelako gauzak onartzeko prest ez gaudela erakutsi behar dugu".

Agerraldiaz gain, igandean Anoetan jokatu den norgehiagokaren hasieran Errealzaleen talde guztiek pankartak jarriko dituzte atletismoko pistan eta lore eskaintza egingo diote Aitor Zabaleta errealezale erailari.

### ROCK KONTZERTUA

Bonba Taldiek Frente Atleticoaren aurkako kontzertua ere antolatu du larunbaterako. Hantxe arituko dira Iskanbila, Des-Kontrol eta Vigoko Kentoi! taldeak. Vigotik autobusa bat etorriko da Arrasatera eta igandean Bonba Taldierekin batera abiatuko da Donostian egingo den kale agerraldi ixilera.

### LOPEZ REKARTE SARIA

Bonba Taldiek antolatutako futbol txapelketa hau abenduaren 20, 21, 23 eta 24an jokatuko da Atxabalpen. Norgehiagokak goizeko 10:30etan eta 11:30etan izango dira. Lehenengo saria Aitor Rekartek emango dio talde irabazleari. Bigarren sarituari Bonba Taldiek emango dio garai-kurra. 3. saria Arrasate Kirolakek emango du eta 4.a, berriz, Mondragon Club de Futboleki.

## Paretak igotzeagatik, edozer gauza


Joan den asteko asteartean Andoni Frutos mondrago-etarra hil zen errepidean izandako ezbehar baten ondorioz. Hogeita bi urteko gazte hau eskalatzailerak amorratu zen. Kirol eskalada egiten zuen. Astebururo, jai egunetan, zubietan..., ahal zuen guztietan joaten zen paretak igotzera bere lagunekin.

Andoni Frutos, edo *Antuan*, lagunek horrela ezagutzen zuten eta, eskalatzailerak ona zen oso. Azken urte honetan hainbat sari eskuratu zituen. Horien artean aipatzekoak dira Euskal Herriko Kirol Eskaladako azken txapelketan lortutako 11. tokoa edo Espainiakopon lortutako emaitza.

Bilbon ere aritu zen Boulder txapelketan eta hirugarren tokoa lortu zuen. Eibarren, berriz, Deba Bailarako txapeldun izendatu zuten.

Eibarkoa da hain zuzen ere, bere lagun mina eta eskalada mota honetan horrenbeste arrakasta izan duen Patxi Usobiaga ere. Patxi adierazi digunez, "Antuan pertsona zoragarria zen. Gustuko nuen harekin eskalatzera joatea. Leku asko bisitatu genituen elkarrekin.: Malaga, Alemania, Paris, Huesca... Lekuak ezagutzea atsegin zuen eta ahal zuen guztietan kanpora ateratzen ginen".

Gauza bera azaldu digu Joxean Mulas bergararrak. "Orain dela urte batzuk etorri zen *Antuan* Bergarako rokodromora. Arrasaten aritzen zen aurretik, baina han giro eskasa zegoela eta, gurekin hasi zen. Harrezkero harreman estua izan genuen, berarekin aritzea denok atse-



Aste Santuan Fontainebleau, Parisen, izan zen Antuan bere lagunekin.

gin genuen eta".

*Antuanek* Araotzen ere utzi zuen arrastorik. Hiru bide ireki zituen., horietako bat *El Pellejo del viejo* izenekoa (Joxeani eskainia, nonbait).

Bere arreba Estelak gogoratzen duenez, "eskalada aitaren lagun baten bitartez ezagutu zuen *Antuanek* eta ordutik bere

bizitzaren gune bihurtu zen. Eskalatzera joateagatik ez zen asteburuetan ateratzen. Asko zaintzen zen, dena ematen zuen eta eskalatzegatik".

Andonirekin batera, Asier Saez gasteiztarra ere hil zen. Bere anaia Joseba, berriz, UBI-tik atera berri da eta dagoneko plantara eraman dute.

## Euskal Herriko karate txapelketa

Larunbatean jokatuiko da Euskal Herriko haur eta junior mailako karate txapelketa. Laudion izango da arratsaldeko 16:30etatik aurrera. Guztira 150 bat gaztetxo arituko dira Laudion. Saioako sei karaketa arituko dira txapelketan. Haur mailan, Sandra Alvarez, Patricia Morales, Jor-

ge Sanchez eta Maikel Talledo arituko dira. Junior mailan, berriz, Iker Zabarte eta Erik Martinek jokatuko dute. Sei kirolariak Gipuzkoako txapelketan oso emaitza onak lortu zituzten. Hori dela eta, larunbatean ere maila ona erakusteko moduan daude karateka mondragoetarrak.



G A B O N    Z O R I O N T S U A K !



# ZABALETTA

LYRRINDEGIA / OPARIAK



Maisu Arano, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 12 32

## KOLOREAK

Sortzeko aukera  
ematen dizu  
eta aldatzeko gaitasuna  
Zenbat eta gehiago erabili, hainbat eta gehiago behar izango duzu.  
Hau da kolorearekiko zaletasuna.

Gabon Zaharrerako  
dotore jartzea gura baduzu,  
deitu eta datorren urtean  
primeran sentituko zara.



Gorbea kalea 2.zkia, ARETXABALETTA • Tel.: 943 77 09 44



**egizabal**

**oinetakoak**

**eta poltsak**

*Lorionak*

*bihotz bihotzes*



## ASMAKIZUNA...

Paristik dabilen artista bat da hau... "Pertsonaia" hau ezagutu eta abesti hau kantatzen dioten lehenengo 5 pertsonak, Santamas gauerako kubata bat irabaziko dute.



## IKASLEAK KAZETARI

Joan zen abenduaren 3an, Arrasateko Institutuko 2. DBHko ikasleek Jon Andueza, Latzen taldeko Aitor eta Ines Osinagari "Euskal Musika Gaur" gaiaren inguruan egindako elkarrizketa jarraitzeko aukera izan zuten. Ondoren, ikasleek ere mahaikoak elkarrizketatzeko aukera izan zuten.

## FAMILIA TRADIZIONALA

Enrike Ibabe, fundizioko lanpostua sukaldari den semeari laga eta bera hasi behar omen da lapikotan. Badakizue, beraz, hemendik aurrera toki berri bat izango da Aramaion ardi-okela eta buskantzak jateko: "Zubitxe" baserria!!!



## MUNDUARI BIRAKA GOIKOBALUREKIN

Abendu "gogorra" izan dute Goikobaluko kantariak. Batean Argentinan, bestean Madrilgo Erret Antzokian, Toulousen... Orain, gainera, abeslari berri gehiagoren bila omen dabilta. Seguru gaude lortuko dituztela.





## Argitalpen berria Garibairi buruz

Datorren urtean beteko dira laurehun urte Esteban de Garibai eta Zamalloa hil zela. Urteurren hori dela eta, Arrasateko Udaleko Kultura Sailak hainbat ekitaldi egiteko asmoa azaldu du.

Lehenik eta behin, Garibairen memoriaren edizio kritikoa egin nahi izan du Udalak. Argitalpen honen bidez memoriari aipatzen dena historikoki aztertu eta komentatuko da.

Argitalpen hori egiteko ikerketa lana Deustuko Unibertsitateko José Angel Achonek zuzendu du. Historian dokorea da Achon. Honen ardurapean beste bi pertsona ere aritu dira lanean.

Garibairen memoriaren testuari hitzurre luzea egingo diote aipatu ikertzaileek, eta horretaz gain, datu argigarriak ere eskainiko dituzte. Garibairen garaiko Arrasateko datuez gain, aurreragokoak ere azalduko dira argitalpen horretan, Arrasate erre zuten garaikoak adibidez. Ikerketa lana otsailerako bukatuta egongo dela uste dute, eta gai-



Esteban de Garibai eta Zamalloa.

nontzeko ekitaldiak honen aurkezpenaren inguruan antolatuko ditu udalak.

## Goikobaluk disko berria aterako du

Goikobaluko hamaika partaide Frantziako Tolosan izan ziren, Bilboko Koru Elkar-tekoekin batera, abenduaren 5etik 13ra. Lekeitio eta Bilboko bakarlariak ere lagun izan zituzten. Hiru kontzertutan abestu zuten, eta horietako bakoitzean 2.000 inguru pertsona izan ziren.

### 11 ABESTI

Aipatu kontzertuetan eskainitako kantez 11 abesti dituen diskoa kaleratuko dute. Eusko irudiak, Suite vasca, Gernika, Gernikako arbola, Agur

jaunak, Aita gurea, Hiru txi-to, Goiko mendian, Maitia nun zira eta Haurtxo sehaskan eta Guridiren hamar euskal melodiak izeneko kantuek osatuko dute diskoa. Grabaketan Michel Plassonek zuzendu zuen Toulou-seko Orkestra Nazionalak lagundu zien.

Diskoa EMI etxearekin kaleratuko dute, eta udaberriko kalean izango da.

Goikobaluko abeslariak oso pozik bueltatu dira, nahiz eta lan handia egin behar izan duten.

## Txatxilipurdik Euskal Liburu, Disko eta Bideo Azoka eratu du

Txatxilipurdik hamabosgarren aldiz segidan antolatuko du Euskal Liburu, Disko eta Bideo Azoka. Abenduaren 19an zabalduko da, arratsaldeko 17:30etan. Ondoren abenduaren 23a arte izango ditu ateak irekita, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:30etatik 20:30etara.

### HAUR LITERATURAREN TXOKOA

Aurten gainera, Haur Literaturaren txokoa

ere izango du aipatu azokak Seberoko ludo-terekin. Txoko honetan hainbat liburuz gozatzeko aukera izango dute txikiak.

Jarduera honek bi helburu nagusi ditu: batetik, euskal kultura zuzpertzeari eta euskaldunei euskaraz kaleratutako literatura, musika eta ikusentzunezko berrienak herri-ratzea. Bestetik, berriz, euskalgintzan lan egiten duten beste elkarte batzuen materiala jende-ari eskuragarai jartzea.



LIBURU ETA PAPERDENDA.  
BIDAIARAKO  
LARRUZKO ARTIKULUAK.

Iturriotz, 4 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 14 84

Jai zoriotsuak izan!!

Year  
oinetakoak  
Clarks  
ENGLAND

Biteri, 13  
Tel.: 943 79 21 71  
ARRASATE

Barrenkale, 9  
Tel.: 943 76 22 86  
BERGARA




# Solariuma eta Makillajea

**GABONAK**  
edertasunez  
ospatzeko

# LORE

## LURRINDEGIA



VALMONT

Ayer

BIOTHERM

CLARINS  
PARIS

HR  
HELENA RUBINSTEIN

### MASAJEA

masaje terapeutikoa

kirol masajea

osteopatia

kinesiologia

### KABINA

gorputz tratamendua

aurpegi tratamendua

drenaje linfatikoa

depilazio elektrikoa

Olarate, 10  
ARRASATE  
☎ 943 79 52 50

**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

eta

bai&by



**CIM**ek hizkuntz irakaskuntzako **25 urteko** eskarmentua, heziketarako empresa egitasmoa eta zure edozein beharretara moldatzeko gai den zerbitzu malgua eskaintzen du.

Araba hiribidea, 4 - **Arrasate**

Tel: 943 - 712055 - Fax: 943 - 712181

Olakua, 14 - **Oñati** - Telf: 943 - 716000 • E-Mail: [empresas@cim-idiomas.com](mailto:empresas@cim-idiomas.com) • <http://www.cim-idiomas.com>

Bikote honek  
zer esan asko  
emango dizu...

**INGELESEZ ETA  
EUSKARAZ**

**CIM** eta **bai&by** k hizkuntz irakaskuntzaren munduko **bikoterik erakargarriena, sendoena eta osoena** osatzen dute.



CIMen enpresa egitasmoaren bilakaera logikoan oinarrituta, **bai&by**-k azken teknologi baliabideak eta emaitzak bermatzen dizkizun sistema dituen **ingeles eta euskara** ikasteko multimedia metodo modernoa eskaintzen du.

**¡ Ingelesa eta euskara ziztu bizian !**



# Loramendi kirolak

Hotzari **aurre** egiteko...

Forro polarrak

Goretex-ak

Txamarrak

Botak...

eta eski ekipoak

**21.900** pta.tik

hasita.

*Etonni katalogo berria jasotzera*

**INTERSPORT**



## NEREA

Erdiko kale, 28

ARRASATE

Tel.: 943 79 13 43




**Gabon jai  
zoriontsuak!**



ĨNAKI RIVIERE, MARGOLARIA

## “Margotzea baizik ez dut buruan”

İnaki Riviere 26 urteko margolari arrasatearra da. Jerez de la Fronteran (Cadiz) Antonio López margolari entzutetsuak zuzendutako nazioarteko margo ikastaro batean parte hartzeko aukera izan du oraintsu. Iaz ere ikastaro berberera joateko beka eskaini zioten. Dagoeneko hainbat erakusketa egin ditu. Abenduaren 20a arte Eskoriatzan egongo da ikusgai “Entre dos tierras” lana.



### — Noiztik margotzeko zaletasuna?

— Hamar urterekin hasi nintzen margotzen, San Viatorren. Leioako Arte Ederretako Fakultatean hasi nintzenerako, nahikoa ongi marrazten nuen. Ikasketen ondoren zorte handia izan dut, margotzeko txoko bat eduki baitut. Hori da margolari baten arazorik handiena. Arte Ederrak ikasten duen gazte asko margotzeko tokirik gabe gelditzen da fakultatetik irten eta gero.

### — Zer margotzen duzu?

— Denetik. Paisajeak, makinaria industrialak, musikako elementuak, konpontzen ari diren eraikuntzak...

### — Nola definituko zenuke zure estiloa?

— Errealismoa egiten dut. Nire margoak asko hurbiltzen dira errealitatera, baina gero eta gutxiago interesatzen zait margolan guztiko detaileez fijaszea.

### — Nola antolatzen dituzu erakusketak?

— Galeria batean sartzeko oso zaila da. Galeristek saltzea nahi dute, eta

horretarako margolariaren izenak komertziala behar du izan. Horretaz gain, galeristak artista asko ditu, eta urte osoa planifikatuta izan dezake. Galeria batean erakusteak gastu handia du. Horregatik, momentuz kultura aretoetan erakusten ditut nire margolanak.

### — Azken aldian, sariketaren batean hartu duzu parte?

— López Villaseñor nazio mailako pintura lehiaketan hartu dut parte oraintsu. 380 margolanetatik 30 aukeratu dituzte, eta horien artean dago nirea, “Agotados los recursos que nos quedan” deritzona. Gasteizko Aitor Urdangarin galerian finalista gelditu nintzen margolan berberaz.

### — Etorkizunera begira, zein asmo duzu?

— Margotzeaz bizi nahi nuke; baina, hori konplikatu da. Margolari gehienek eskolak ematen dituzte, horrek aldiberean segurtasuna ematen baitizu eta nahitaez saldu beharrak sortzen duen estresetik askatu. Orain margotzea baizik ez dut buruan.

## aste gazte

### ■ LANA

• Irungo Udalean hainbat langune bete nahi dira: informazio eta tramitazio laguntzailea, planeamenduko arkitektoa, antolakuntza teknikaria, staff teknikoaren unitateko arduraduna, planeamendu, informazio eta programazio teknikaria eta hiri disziplina-ko teknikaria. Epea: abenduak 22.

• Basauriko Udaleraiko, tributazio kudeaketarako erdi mailako teknikaria eta sistema teknikari bat behar dira. Epea: abenduak 28.

• Iruñeko Udalean gizarte langile bat eta erdi mailako teknikari bat behar dituzte. Epea: urtarrilak 7.

• Noaingo Musika Eskolarako, akordeoi, piano eta musika hastapenerako irakasle bana behar da. Epea: urtarrilak 14.

### ■ LEHIAKETAK

• “Bilbao Hiria” pop-rock lehiaketa. Euskal Herriko nahiz estatu espainiarreko taldeek parte har dezakete, bi modalitateetan: pop-rock edo rock gogorra-heavya. Lau kantaz osaturiko bilduma, abenduaren 31 baino lehen bidali behar da.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

# RUIZ

Lurrindegia • Opariak

Bañez Dokorea, 4 • Tel.: 943 79 19 94 / Part.: 943 77 05 74 • ARRASATE





# Herri baten bultzada


**M**arkos komandan-teordea bularrean zintzilik duela egin digu Jabilok harrera Aita Mennin. Leku guztietara laguntzen diola esan digu. Seguru aski horrek ere emango dio borrokan segitzeko kemena, aurrera egiteko gogoia duenik ezin baita ukatu.

Maiatzaren 12an arnasa hartzeko zailtasunekin oheratu zen Jabilo; alergiaren baten eragina izango zela pentsatu zuen hasieran. Arnasketa, ordea, aldebiko pleura haustura batek eragozten zion. Pleura barrunbe torazikoaren paretak eta biriken azala inguratzen dituen mintza da. Ondorioz, birikak estutzen zizkion aire sarrera izan zuen, arnasa hartzea zailduz. Oxigeno falta honek buruko lesioak eragin zizkion, lo zegoen bitartean.

Hortxe hasi zen gazte honen gurutzebidea; baita bere laguntaldearen eta oro har herri osoaren elkartasuna ere.

## SENDATZEA

Eskualdeko ospitalera eraman zuten lehendabizi, eta handik Txagorritxura. Koma egoeran hogeitabat egun igaro zituen, eta piska bat zuzpertz ahala, Donostiako Matia fundazioa joatea aholkatu zieten.



Itxaropenaren irrifarrea erakutsi zigun Jabilok.

**Ezaguna da Jabi Mayor herrian. Beharbada ezagunagoa "Jabilo", horrelaxe deitzen baitiote lagunek 27 urteko arrasatear honi. Maiatzaren 12ko gauean bizitza zeharo aldarazi zion gaitza izan zuen. Ordutik egunero borrokan dihardu Jabilok, eta horrela segituko du sendatzeko xedez. Izan ere, inoiz amore emateko gogoia sentituz gero, herria atzetik izango du bultzaka, orain arte moduan.**

Osasun laguntza Gizarte Segurantzak ordaintzen bazien ere, hauetako inork ezin zion Jabilori guztiz berrezartzeko tratamendu egokia eskaini. Hori dela eta, uztailean Aita Menniko Burmuin Gaitzeta-ko Unitatera eramatea gomen datu zioten medikuek familiari.

Hortik aurrerako pausoak ongi pentsatuta eman dituzte. Horixe adierazi digu Maria Luisak, Jabiloren amak: "egoera ikusita, Jabiri aukera bat eman nahi izan genion, buruz oso ongi baitzegoen. Hori jakinda, egin ditugun urrats guztiak ongi pentsatuta eta zuhurtasunez egindakoak izan dira".

## GIZARTE SEGURANTZARIK EZ

Itxaron zerrendetan zenbait egun egin ondoren, Aita Mennin darrai Jabik abuztuaren 12tik. Erakunde honetan jasotzen dituen zainketak izugarri egokiak dira. Dena den, bere garaian ahaleginak egin zituzten arren, Gizarte Segurantzak ez dizkie gastuak estaltzen, eta aipatu zainketek hilean ia milioi bat pta. ko kostua dute.

Maria Luisak horrelako gaitzei Gizarte Segurantzak ez diela dagokien erantzuna ematen uste du: "horrelako kasuen aurrean, Gizarte Segurantzak

## BAKAILO ETXEA



- Bakailaoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailaoan espezializatua
- Bakailao kazoletak prestatzen dira (bakailao gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 943 79 93 07

## JAI ZALE TABERNA

- Ogitaratekoak • Infusio naturalak eta...
  - Pintxoak
- MARTXA TOPATUKO DUZU!**

Olarte, 37 • Tel.: 943 79 67 92 • ARRASATE



# DENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen hilaletokaria,  
4. zenbakia, 1998ko abendua.

Komertziala: Nerea Lazpurr. Disainua eta maketazioa: Inaki Iturbe eta Txos Azurmendi.  
Tirada: 11.500 ale. Tf.: 943 76 03 97. Faxa: 943 76 29 77.



MARKA ETA MODELOA      MATRIK.      URTEA      EZAUGARRIAK      PREZIOA

## AMETS TAILERRAK. BEREZANO AUZOA 5. OÑATI. TF. 943 78 19 50

Fiat Ducato	SS-AW	1996	Autokarabana, 6 plaza	*7
Ford Mondeo 1.8 TD Fam.	SS-AW	1996	ABS, AG	*7
Ford Mondeo 2. Ghia	SS-AP	1993	SE, ABS, AG	*6
Ford Fiesta 1.3	BI-AS	1992	5 ate	*3

## ASEGINOLAZA AUTOAK. URTEAGA 37. BERGARA. TF. 943 76 12 50

Opel Omega		1994	Erabat jantzia	*7
BMW 320 I		1989	IK, 4 ate	*3
Ford Mondeo TD		1993	IK, IZ, KE, AG, Airbag	*6
Ford Escort TD		1996	IK, IZ, KE, Airbag	*6
Ford Fiesta 1.3		1997	IK, Airbag	*5

## AUTOLEYMA. AITZITURRI 5. BERGARA. TF. 943 76 09 30

Peugeot 605 ST DT 2.5			IZ, KE, LD, AG, ABS, Airbag	*7
Peugeot 406 ST 2.0			IZ, KE, LD, AG, ABS, Airbag	*7
Peugeot 306 Sedan 1.6			IZ, KE, LD, Airbag	*6
Peugeot 306 XN 1.4			LD, Airbag	*5
Peugeot 106 Sketch D			3 ate	*4

## BERGARA AUTOAK. AMILLAGA 10. BERGARA. TF. 943 76 04 58

BMW 325 TDS	Ipintzeko	1995	KL, ABS, Airbag, Musika ekipoa	
Mitsubishi Montero 2.5 TDI	Ipintzeko	1992	AG, IZ, KE	
Mitsubishi Pajero 2.5 TD	Ipintzeko	1991	LD, IK	
Opel Frontera 2.3 Turbo Intercooler	SS-AS	1993	LD, IZ, KE, IK	

AG: Aire girotua    AH: Aleaziozko hagnak    AL: Alarma    BA: Balbula anitza    IE: Ispilu elektrikoak  
HT: Hard top    IK: Irrati-kaseta    IZ: Itxigailu zentralizatua    KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
KL: Klimatizagailua    LD: Lagunduriko direkzioa    LGT: Lau gurpiletako trakzioa    LK: Laino-kontrako argiak  
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak    NT: Narruzko tapizeria    SE: Sapai elektrikoak

\*1: 300.000 PTara arte  
\*2: 300.000-500.000 PTA  
\*3: 500.000-750.000 PTA  
\*4: 750.000-1.000.000 PTA

\*5: 1.000.000-1.500.000 PTA  
\*6: 1.500.000-2.000.000 PTA  
\*7: 2.000.000 PTAtik aurrera

Garajeko mandoen  
kopiak egiten  
ditugu!

**Txorno**  
Auto-errekambioak  
Ibargarai 33, behea. BERGARA  
943 76 29 95

**AGUSTIN**  
Automobilaren  
karburazio eta  
elektronika **Airtel**

Uribarri etorbidea 16.  
Arrasate. 943 79 73 58

**AUTO DESGUACES  
BERGARA**

943 76 35 47 (desguazekoa)  
943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK  
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK  
GRUA ZERBITZUA

**TXURRUKA AUTOAK S.L.**

- Garajea
- Garraio zerbitzua
- Taxi zerbitzua

Aitziturri 5. San Lorentzo. Bergara.  
Tf. eta faxa: 943 76 12 36.



MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
Ford Transit	SS-AH	1990	IK	
Audi 80 TDI	Ipintzeko	1993	IZ, KE, LD	

**BERRIA GARAJEA. AMILLAGA 49. BERGARA. TF. 943 76 22 43**

Ford Sierra	SS-Z	1987	4 ate, Km gutxi, Egoera bikainean	350.000
Audi 80 1.8 E	SS-AB	1988	KE, LD, IZ, Egoera onean	800.000
Renault Clio D 1.9 RT		1991		750.000
Citroen BX 1.7 TZD	SS-AM	1992	ABS, AG, 4 KE, LD, IZ, AH, LK	800.000
VW Santana TD	BI-AF	1984		Merkea

**GURTZAIN GARAJEA. ALMIRANTE BIKUÑA Z/G. LEGAZPI. TF. 943 73 00 92 / 929 43 74 12**

Toyota Land Cruiser	SS-AF	1989	Erabat jantzia	1.200.000
Renault 18 Familiarra	VI-G	1987	Oso egoera onean	300.000
Peugeot 205 D	NA-T	1988		400.000
Land Rover Largo			Egoera onean	385.000
Range Rover	SS-AS	1993	Erabat jantzia	2.500.000

**ION AUTOAK. AMILLAGA 36. BERGARA. TF. 943 76 47 49**

VW Polo GT	NA-X	1990	Km gutxi, 3 ate, 6 hilabeteko garantia	500.000
Citroen Xantia 2.1TD VSX	M-TH	1996	Urte beteko garantia osoa	2.400.000
Rover 220 GSi	SS-AT	1994	Osagarriak, 6 hilabeteko garantia	Interesgarria
Renault Express D	SS-AC	1988	Oso egoera onean, 5 plaza	Interesgarria
Peugeot 405 1.9 TD	SS-AJ	1990	Oso egoera onean, 6 hilabeteko garantia	Interesgarria
Rover 820 Si	SS-AF	1989	Osagarriak, Garantia	Interesgarria

**JASO GARAJEA. AMILLAGA 1, 4 PABILIOIA. BERGARA. TF. 943 76 33 00**

Peugeot 205 GTX 1.6	SS-XIK, IZ, KE, Aluminiozko haguak			*1
---------------------	------------------------------------	--	--	----

**KANPAZAR TAILERRAK. BIZKAIA ETORBIDEA Z/G. ARRASATE. TF. 943 79 41 98**

VW Golf 1.8	SS-AP	1993	LD, IK, IZ, KE, 5 ate	*5
Fiat Uno 70	SS-AC	1988	IK, IZ, KE, 3 ate	*2
Fiat Uno 70	BI-AU	1988	IK, IZ, KE, 3 ate	*2

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak  
 HT: Hard top IK: Irrati-kasetak IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak  
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak


\*1: 300.000 PTAr arte  
 \*2: 300.000-500.000 PTA  
 \*3: 500.000-750.000 PTA  
 \*4: 750.000-1.000.000 PTA

\*5: 1.000.000-1.500.000 PTA  
 \*6: 1.500.000-2.000.000 PTA  
 \*7: 2.000.000 PTatik aurrera

**GARAJE MURILLO**

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara  
 Tf. 943 76 13 84



Garraioaren mundua

**LAGUN GARAJEA**


Javier Gallastegi Arenaza

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

**ORAIN HELBIDE BERRIA!**

Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20



**ARRASATE  
 AUTOZERBITZUAK,  
 S. KOOP.**

- Autoa eskuz garbitzea
- Jarleku etatapizerien garbiketa
- Autoaren azterketa
- Mekanika orokorra
- Eta abar...

Urizarri 20. Arrasate.  
 Tf. 943 79 52 76



**MARKA ETA MODELOA      MATRIK.      URTEA      EZAUGARRIAK      PREZIOA**

**LENIZ GARAJEA. AINGERU IBILTOKIA 31. ESKORIATZA. TF. 943 71 50 61**

Renault Expres D Combi	SS-X			350.000
------------------------	------	--	--	---------

**MARKIEGI AUTOAK. SAN LORENTZO Z/G. BERGARA. TF. 943 76 35 09**

Fiat Tempra		1992	Oso egoera onean	*3
-------------	--	------	------------------	----

**MUGARRI. ARABA ETORBIDEA Z/G. ARRASATE. TF. 79 07 44**

Nissan Patrol D		1992	Full equiped	
Nissan Terrano TDi		1996	Tope Luxua	
Nissan Patrol GR TD		1994	3 ate	
Nissan Patrol GR TD		1994	5 ate	
Ford Mondeo TDI GL		1997	Erabat jantzia	
Ford Mondeo TDI Guia		1994	Erabat jantzia	
Ford Escort TDI GL		1994	Erabat jantzia	
Ford Escort TDI GL		1998	Erabat jantzia	

\* 40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pta. artean. Zatoz ikustera!

**OLA TAILERRAK. OLABARRENA Z/G. BERGARA. TF. 943 76 47 74**

Ford Fiesta	SS-AF	1989	IK	Kontsultatu
Opel Kadett	SS-AD	1989	AH, IK, KE, IZ	Kontsultatu
Renault Cio	SS-AL	1991	IK, KE, IZ	Kontsultatu
Renault Express	BI-AZ	1989	Mistoa, 5 ate	Kontsultatu
Hyundai GT	SS-AT	1994	AH, IK, KE, IZ, Alerioia, 3 ate	Kontsultatu

**SEAT UDALAITZ. MUSAKOLA Z/G. ARRASATE. TF. 943 79 18 80**

WV Golf	SS-AF			*3
WV Passatt VRG	SS-AN			*4
Opel Vectra 16 V	SS-AK			*4
Opel Kadett 1.6	M-MW		5 ate	*1
Citroen BX TD	SS-AL		Erabat jantzia	*3
Opel Kadett 1.6	SS-X		4 ate	*1
VW Golf D	SS-AS			*5

AG: Aire girotua    AH: Aleaziozko haguak    AL: Alarma    BA: Balbula anitza    IE: Ispilu elektrikoak  
 HT: Hard top    IK: Irrati-kaseta    IZ: Itxigailu zentralizatua    KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
 KL: Klimatizagailua    LD: Lagunduriko direkzioa    LGT: Lau gurpiletako trakzioa    LK: Laino-kontrako argiak  
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak    NT: Narruzko tapizeria    SE: Sapai elektrikoak

\*1: 300.000 PTArate arte  
 \*2: 300.000-500.000 PTA  
 \*3: 500.000-750.000 PTA  
 \*4: 750.000-1.000.000 PTA

\*5: 1.000.000-1.500.000 PTA  
 \*6: 1.500.000-2.000.000 PTA  
 \*7: 2.000.000 PTAtik aurrera

**JASO GARAJEA**

**Orain helbide berria!**



**AUTOEN  
 KONPONKETA OROKORRA**



Amillaga 1, 4 pabilioia. Bergara. Tf. 943 76 33 00

**TXOMIN GARAJEA**



Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa


Lizarraga auzoa • ANTZUOLA • Tf. 943 78 70 77



El acuerdo del siglo XXI  
XXI. mendeko  
AKORDIOA

L'accord du XXI<sup>e</sup> siècle

[www.falgi.com/baieuskarari](http://www.falgi.com/baieuskarari)



---

*euskarari*

Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat · El 26 de diciembre tienes un compromiso · Le 26 décembre tu as un engagement





Jabiloren lagunak Maritxu Kajoi egunean jarri zuten txoznan.

ikusi behar luke berak eman behar lukeen laguntza handia izango litzatekeela, eta inola ere ez alferrikakoa". Zera ere gaineratu du: "Gizarte Segurantzak horrelakoetan eskuhartzea inteligentzia eta gizatasun kontua da; portaera hori eredugarria izango litzateke gizartearen aurrean, zuhurtziaz jokatzear gain, bete-betea asmatuko bailukete".

### ELKARTASUN EKINTZAK

Agudo asko hasi zen Jabiren laguntaldea honen familiari dirutza hori ordaintzen laguntzeko moduak bilatzen. Lehenik eta behin 30.000 errifa jarri zituzten salgai inguruko saltoki eta dendetan, bakoitza

## "Jendeari esker eta batik bat Jabiren lagunei esker lortu dugu aurrera egitea"

200 pta.tan. Gero kontu korronteak ireki zituzten Kutxan, BBVn eta Euskadiko Kutxan. Jabiloren lagunak adierazi bezala, "Bergarako laguntalde batek asko lagundu zigun gai hau bideratzen, haiek ere antzeko kasua bizi izan baitzuten adiskide batekin".

Jabiloren aitak lan egiten

duen Uribesalgo enpresako langileek ere beren elkartasuna erakutsi diote familiari. Izan ere, lantegi honetako 74 langileetako bakoitzak hilero 2 orduko lansaria eskaintzen du Jabiloren tratamendua ordaintzeko. Irailean hasi ziren ekimen honekin.

Arrasateko Motortzaleen Elkarteak, berriz, irailaren

1ean Mojategin egindako motokros txapelketako mozkinak Jabiloren zuzpertzearen alde eman zituen.

Azaroaren 26an film laburren emanaldia egin zen Jabiloren alde Amaia antzokian. Euskarazko bi film labur eta gaztelaniazko beste hiru izan ziren ikusgai. Bertaratu zirenek oso ongi balioetsi dute emanaldia.

HIES Ekimenak eta gaztetxeak antolatuta, Brutal Melody eta Gospel Killers taldeen kontzertua izan zen abenduaren 5ean gaztetxean. Sarrekin lortutako irabaziak Jabiren tratamendua ordaintzeko bideratu zituzten. Eta horrenbeste ekitaldiren artean, aipa-

**NAROKI**  
LIBURUDENDA

Zure oparia  
hemen aurkituko  
duzu!!

**NAROKI**  
BITXITEGIA

Opari bat  
erosketa  
bakoitzeko  
ZATOZ!

*EsLu*

**ile apaindegia**

Tel.: 943 79 37 88 • ARRASATE




tu gabe ahaztuta ere geldituko zen bat edo beste.

## JENDEAREN ERANTZUNA

Bai Jabiloren familian eta baita lagunengan ere harridura da nagusi jendeak emandako erantzunaren aurrean. Xabier Atxa Jabiloren lagunak ere horixe eman zigun aditzera: "ez genuen uste herritarrek horrela erantzungo zutenik. Izugarri babestu gaituzte. Ezusteko handia izan da guretzat. Atea jotzera gu joan beharrean, jendea etorri da gugana laguntza eskaintzera".

## AURRERAPENA

Herritarrek Jabilori emandako laguntza ez da alferrikakoa izan, ordea. Ezta Aita Mennin egindako egonaldia ere. Jabilok aurrera egiteko duen gogo eta indarrari mondragoetarrek emandako berotasuna eta bultzada batu zaizkie. Eta horiei guztiei esker lortu du Jabilok hitz egiten eta apurka-apurka gorputzeko atal batzuk mugitzen has-



iazko Santamasetako alearen azala Jabilok egin zuen.

tea.

Jabiloren ama ere oso pozik dago semeak egin duen aurrerapena ikusita: "poliki-poliki bada ere, asko zuzpeltu da Jabi. Oso argi dago,

eta ezin hobeto koordinatzen du. Gainera, goraiptzekoa da bere unitateko medikuek egiten duten lana. Itxaron beharra beti egiten da luze, baina, orain denbora eman behar

zaio, aurrera egiten segi dezan".

Maria Luisa ez da bate-re eskertzarreko emakumea. Horixe antzeman diogu, burura etortzen zaizkion hitz guztiak ez baititu aski jendeak eman dion berotasuna eta laguntza onesteko: "Jendea-ri esker eta batik bat Jabiren lagunei esker lortu dugu aurrera egitea. Hauek babes handia eman didate. Gizatasunez betetako eta izugarri ongi prestatutako gazteria dugu, eta hauek guztiek sentiarazten naute indartsu eta esperantzaz aurrera jarraitzeko".

Agurtu ere, Markos komandanteordea lagun zuela agurtu dugu Jabilo. Indartsu, gogor, beti aurrera egiteko ziurtasunez. Eta gu ere ziur gaude baietz, bideari aitzinera begira itxaropentsu segituko duela, berarekin batera herri osoak egingo baitu aurrera.

Maidar Osa

## JABILORENTZAT

eskerrik asko

NE 029935 Laguntza 200 pta

Sarien zozketa  
Ihaukerietan izango da

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Oraindik salgai daude errifak.

## Jabiloren aldeko hurrengo ekintzak

- Santamas egunean goizez txozna jarriko dute lagunak. Txistorra, gazta otartekoa eta edariak izango dira.
- Abenduaren 21, 22 eta 23an eta urtarrilaren 3,4 eta 5ean Gaztetxeak antolatutako 3. Merkatu Alternatiboa.
- Arrasate Musikaleko boskote batek eskainitako jaialdia (ekintza hau guztiz zehaztu gabe dago).
- Otsailaren 6an, folklore jaialdia Amaia antzokian. Al Andalus, Corazón de Encina, Lore Gazteak eta Arrostitaitz taldeek

hartuko dute parte. Jaialdi honetan egingo da seguru aski errifaren zozketa. Sariak ondorengoak izango dira: Eroskik emandako bidaia, 50.000 pta Ibai Arteko dendatan gastatzeko, lau pertsonarentzako bazkaria "Kiruri" jate-txean, lau pertsonarentzako afaria Udako Larrinetxe jate-txean eta Kajoi tabernak emandako bi kaxa txanpan.

- Harresi aretoan, maiatzaren 7tik 30era: Artista talde batek antolatu erakusketa eta margolanen salmenta.

**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**GORKA**

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M**  
**ARENZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA



# Kabía

## ALTZARIAK



## APAINKETA

### ERRAZ EROSI.

Ordain ezazu 24 hilabetean,  
interesik gabe

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 70



enmarkazioa •  
ispiluak •  
kuadroak •  
obra grafikoa •

**ARREGI**   
arte eta enmarkazioa

Maalako errebala, 8 Tel.: 943 79 56 44 ARRASATE

**Jai zoriontsuak igaro!**



**LIRAIN**  
ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA

**Gabonetan opari ezazu osasuna**

**A**urten oparia aukeratzea errazagoa izango duzu. Zatoz Lirain Zentrura eta benetan eskertuko dizuten oparia aukeratu.

**ESTETIKA-ZENTRUA**


- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Ezpainen makillaje iraunkorra
- Manikura eta pedikura
- Lokatzak
- Kosmetika produktuak

**PLAZERRA**

- Dutxa eskoziarra
- Hidromasaje-bainuontzia
- Masaje lasaigarria
- Lurrun-bainuak
- Presoterapia



**Kirola, edertasuna eta plazerra elkartzen dituen tokia**



**Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17**



# SANTAMASAK

# 98

Hemen dira Santamasak eta Santo Tomasak. Herrian esateko modu biak erabiltzen baitira, nahiz eta azken urteotan lehena gailendu. Baserri auzoetan Santo Tomasak esaten zitzairen baserriarren neguko festei. Kalekoek, aldiz, Santamasak zuten nahiago. Azkenean, kaletarrak nagusi.

Guri berdin zaigu Zigorrola edo Musakola, Santamasak edo Santo Tomasak. Kontua da Gabon giroan sartu garela eta festagi-roan, beraz.

Dagoeneko esan liteke talo eta txistorra usaina hartzen dugula bazterretan. Irratitik loteriaren ohiartzunak iristeaz batera, aspaldi ikusi gabeko lagunak eta senitartekoak agurtzeko parada izango dugu, baserriko produktuak ikusteko eta dastatzeko aukera eta garaiko ikuskizunez gozatzekoa.

Ezin ahaztu Euskal Herriak bizi duen bakegiro esperantzagarri bezain hauskorra eta behar baino urutiago ditugun herritarrak. Denak izango ditugu gogoan. Ondo pasau!



**Aupa  
Santamasak!!**

**OKORETEGI**

**KAFETEGIA**

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.:943 77 03 62



# Nola aldatzen diren gauzak

Santamasak ohitura bihurtu diren moduan, jai hauek iragartzen dituen hormirudiak jaia bezain ezagunak bilakatu dira.

Utzune Urrizalkik kontatu digunez, Jai Batzordeko kideak izan ziren duela 20 bat urte jaia eta jaiaren isla den hormirudiaren bultzatzaileak. Zakilixut komikiaren aita den Antton Olariagak pozik hartu zuen hormirudia egiteko enkargua.

Ordutik orain bi urte arte eta urte bateko parentesiarekin, bera izan da Santamasak jaiak ilustratu dituen. Zuri-beltza oinarritzat izanda, txerriari protagonismo osoa eman izan dio. Egin dituen marrazkietan, gainera, bere komikietako Zakilixuten marrazkia ezkatututa sartu du beti; herritarrekin nolabaiteko harremana lortzeko edo. Izan ere, askorentzat ohitura izan da Zakilixut non dagoen bila ibiltzea Santamasetako hormirudian. Honez gain, "ez gaude denok" esaldia beti agertu izan da. Era berean, urte bakoitzare-

kin zerikusia zeukan gai nabarmen baten aipamena ere egiten zuen Olariagak bere marrazkietan. Kontua da Anttonen hormirudiak klasi-ko bihurtu zirela herrian.

## ORAIN UDALA

Orain bi urte udalak hartu zuen zuzenean Santamasen antolaketa. Ondorioz, jaiaren iragarten-kartela ere udalarena izatera pasatu zen. Arrazoia,

hormirudia egiteko aukera herritar gehiagori ematea izan omen zen. Jai Batzordeak adierazi digunez, ordea, Olariagaren hormirudian agertzen den esaldia izan omen da arrazoia.



Antton Olariagaren eta Leire Zubikariren hormirudiak.

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua

DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN



## BASTER-ALDE

### J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA


Tel.: 943 79 24 58

**Lora** bar

**Aupa arrasatearrak!  
Aupa Santamasak!**



# Ba al dakizu zer erosten duzun?



**E**xijitu etiketa eta bertoko behi-okelaren bermea izango duzu, naturala eta kalitatekoa.



**EUSKO LABEL**



**KALITATEA**



EUROPAKO ELKARTEAREN PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA



Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (▶) adierazitako Harategi Baimenduek **ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN** sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

**ARRASATE O MONDRAGON**

- ▶ **LANDALUZE HARATEGIA**  
Iturrioz Kalea, 7
- ▶ **AZPILIKUETA HARATEGIA**  
Doctor Bañez, 10
- ESPARZA HARATEGIA**  
Avda. Alava, 14
- ELORZA HARATEGIA**  
Juan Bengoa, 1
- JOSE M<sup>o</sup> SALEGI HARATEGIA**  
Olarte, 20
- J. RAMÓN OTAMENDI HARATEGIA**  
Ferrerías, 20
- AZPILIKUETA HARATEGIA**  
Erguin, 12

**ESKORRIATZA**

- CARNICERÍA ZUBIA**  
Santa Ana, 11
- EROSLE-ESKORRIATZA**  
Aranburuzabala, 3
- ARAMAIO**
- BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA**  
Bixenti Goikoetxea Plaza, 8





*Zorionak  
eta  
urte berri on!!*



*Karmele Bitxitegian  
oparirik  
distiratsuenak.*

Iturriotz, 33 • ARRASATE • Tel.: 943 77 07 41



# Mende hasierako Arrasate ezagutzeko aukera

“Arrasate Festetan, 1933” izeneko filma datorren astelehenan aurkeztuko dute Mondragoen. Aurkezpena, iluntzeko 19:00etan izango da Amaia Antzokian. Ondoren, 20:00etan, berriz proiektatuko dute.

Filmaren euskarriak ez zuen filma ikusten uzten eta denborarekin gainera, bere egoera okertzen zihoala eta, zaharberritzea erabaki zuten.

Euskadiko Filmategia izan da 12 minutuko film labur hau berriztatzeaz arduratu dena. Peio Aldazabalen zuzendaritzapean egin da eta milioi t'erdia pezetako gastua izan du. Arrasateko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaz egin da.

Filma berez, mutua da, baina Euskadiko Filmategiak eginiko berriztapenaren ostean, Juan Carlos Irizar pianojole oñatiar ezagunak konpo-



Filman, kendu zuten plazako kiosko zaharra eta parrokia ikusten da.

satutako musika gehitu diote.

## ARRASATEKO PARAJEA

Film anonimo honek 1933. urteko data duen arren, ez da erabat segurua ordukoa ote den. Hala eta guztiz ere, Gerra Zibila baino lehenagokoa dela

ongi dakite, ikurrina baino aurreragoko euskal estandar-te bat agertzen baita eta hori debekatuta zegoen Gerra Zibilaren garaian.

Inguruko mendi batetik hartutako Arrasateko irudiak ikus daitezke filmean. Herri

barruko planoak ere agertzen dira, Udaletxea, musika banda, txistulariak, pilotariak eta jai giroarekin lotutako beste hainbat irudi. Arrasate orain dela 65 urte nolakoa zen jakiteko aukera paregabea.

## DONOSTIAN IKUSI DUTE

“Arrasate Festetan, 1933” dagoeneko aurkeztu da jendaurrean. Donostian izan zen aurkezpena pasa den ostiralean, Euskadiko Filmategiaren egoitzan. Hantxe egon ziren Jose Maria Loiti Arrasateko alkatea, Koruko Aizarna Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara diputatua eta Migel Rey, Euskadiko Filmategiko lehendakaria.

## PROIEKZIO BEREZIA

Iturbide Egoitzan bizi direnauk aukera berezia izango dute film labur hau ikusteko. Abenduaren 23an arratsaldean bertakoentzat botako dute.

**SANTAMASETAN  
ONDO PASATZEKO...**



Iturriotz, 12 • ARRASATE

**Fruitu eta barazki  
freskoak**

Enkarguak  
etxera  
eramaten  
ditugu

**AUPA**  
santamasak



Zerbitzu  
ezin hobea!  
Tratu atsegina

Etxetik gertu  
eta aparkalekua  
kalekoentzat.

Aranbarri Maisua, 2 beheha Tel.: 929 45 92 33





Adin ezberdinetako zortzi lagun arituko dira herrian joaldiak astintzen.

## Iturengo Ttuntturroak Santamasetan

Jabier, Txema, Xabier, Iban, Ernesto, Joakin, David eta Jon arituko dira Santamas egunean joareak bizkarrean hartu eta sorginak eta izpiritu txarrak uxatzen herriko kaleetan.

Iturendik etorriko dira eta galtza urdinak, abarkak, azpiko gonak, ardi larruak eta joareak bizkarrean hartuta abiatuko dira herriko kaleetan zehar.

Hogei bat urte dira lehenengo aldiz Mondragoera etorri zirela. Orduetik hona urtero etorri izan dira joaldunak, hau da, joareak jotzen dituztenak. Laz ezin izan zuten etorri, baina aurten hemen izango dira.

Oilar lumak daramatzaten koloretako ttuntturroak buru gainean, zapi gorriak lepoan eta behorren buztanekin egin-

dako ixopuak eskuetan irten-go dira. Horrela jantzita arituko dira joareak astindu eta oihuak eta irrintziak eginez.

Goizeko 11:00etan aterako dira kalejiran eta eguerdia arte arituko dira kalez kale. Joaldunak Iturengoak izanik, beti aritu izan dira euren herrian. Inauterietan, Errege bezperan eta irailaren hirugarren larunbate-

an ateratzen dira Iturenen. Orain dela hogeita hamar urte, ordea, Iturendik ateratzen hasi ziren.

Arrasatera Santamasetako jai batzordeko kideen bitartez etorri ziren lehenengo aldiz. Jabier Berean joaldunetako batek adierazi digunez, gainera, "jendeak atsegina dituen honelako kalejirak eta gustura etortzen gara Arrasatera".

**KONPONBIDERIK ORIGINALENAK**



# Jovi

## PINTURA EKOLOGIKOAK

### Diferentzia: zure osasuna!

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex.

Neurriko felpudoak. Pertsiana

biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak.

Kortxoa. Moketa losetan.

Erretxina autonibelatzailea duten lurzorua.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 79 12 87





Lehiaketan parte hartu dezaketen bi denda.

## Dendak zein baino zein dotoreago

Ohitura bihurtzen ari da urtero abenduaren bukaeran Santamasetako Eskaparate Lehiaketa. Aitzakia hau hartuta, Arrasateko denda ugarik hartzen dute aparteko lana beren erakusleihoak prestatzeko. Urtero legez, Arrasateko Udala eta Ibai Arte elkarteak izan dira lehiaketaren antolatzaileak.

Eskaparateek, dena den, ohiko produktuak azaldu behar dituzte, eta, epaileen lana errazteko, erakusleihoaren argizta-

pena egokia izan behar da. Sariak erabakitzerakoan epaileek kontuan hartuko dituzten irizpideak hauetxek izango dira: irudimena, originaltasuna, mezu publizitarioaren baliogarratasuna, eskaparatearen itxuraren kalitatea eta Santamas eta Gabon giroarekin duen zerikusia. Beraz, dendariak gauza ugari hartu behariko dituzte aintzat udalak eta Ibai Artek erabakitako sariren bat eskuratu nahi badute.

Erakusteko epea gutxie-


nez 1998ko abenduaren 14tik 1999ko urtarrilaren 2ra bitartean izango da, biak barne. Dena den, eskaparatearen muntaketa lehenengo egunerako egin beharko da.

Sariak Santo Tomas egunean (hilak 21) banatuko dira, lehen sariaren irabazlearen dendan. Sari-banaketa eguerdian hasiko da. Hala ere, epaimahaiak sariak hutsik uzteko aukera izango du.

Sariak honeko hauek izango dira: lehen saria, plaka eta

30.000 pezeta dira; bigarrena, 25.000 pezeta; hirugarrena Ibai Arte merkataritza elkarteak emandako 20.000 pezeta.

Beraz, herriko dendariak aitzakia bikaina dute aurten ere, erakusleihoak dotore jartzeko. Lehiaketa honetan parte hartzeko 1998ko abenduaren 11 baino lehen Kultura Departamentuan izena eman beharko da, udaletxean. Udaleko sail honen telefono zenbakia 79 09 00 da. Arrasateko dendari guztiak daude gonbidaturik.



**GABON  
ZORIONTSUAK  
IGARO!**



**AREITIO**  
Zarugalde. 35 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 38 38

Kirola maite  
dugulako





# Kirolak nonahi Santamasetan


Abenduaren 19an jokatuko dira benjamin, alebin eta haur mailako Santamasetako eskuz banakako pilota txapelketako finalak.

Iturripeko pilotalekuan arituko dira goizeko 10:00etatik aurrera pilotariak. Lehenengo txandan, Bolinaga-Arriolabengoa neurtuko dira. Benjaminen B bikotearen ostean, Bolinaga-Gorka neurtuko dira. Alebinetan ere bi final jokatuko dira: Castillo-Lakuntza eta Jimenez-Gozalo. Haur mailan, berriz, Arroia-be arituko da Etxeberria edo Axperen aurka eta Uribarren-Agirre arituko dira.

## FRONTENIS FINALAK

Musakolako kiroldegian III. Frontenis Txapelketako finalak jokatuko dira. Goizeko 10:30etatik aurrera Zulueta-Gutierrez eta Decimavilla-Garmendia arituko dira kontsolazio saria jokatzen. 11:15etan, 3. eta 4. tokiak jokatuko dituzte, Oruna-Arana eta Azurmendi-Orobengoa bikoteek.

Finala, eguerdian izango da, Bergarako Albisua-



Sei pilota partida jokatuko dira aurtengo finalean.

-Vallejos eta Hurtado-Izquierdoren artean.

## ARTE MARTZIALEN ERAKUSTALDIA

Musakolako kiroldegian bainan 18:00etatik aurrera, Gerra Arteen erakustaldia egongo da. Arrasateko Aikido Taldeak antolatuta hainbat taldetako partaideak arituko dira: Arrasateko Judo taldea, Arrasateko Jiu Jitsu eta Bilboko Sha-

olin taldeak, hain zuzen ere. Erakustaldia Ertamerikan Mitch urakanak eragindako kaltetuen alde izango da.

## XAKE TXAPELKETA

X. Santamas Xake Txapelketa jokatu da Corazon de Encina zentruan igandean, abenduak 20. Iaz Aretxabaletako laukoteak irabazi zuen txapelketa honetan, 14 bat laukotek hartuko dute parte aurtent. Donostia, Orereta, Tolo-

sa, Aretxabaleta, Eibar, Ermua, Durango, Abadiño, Castrourdiales, Santoña... izango dira ordezkariak izango duten herritako batzuk. Arrasateko laukotea, Jose Manuel Hernandez, Josu Tornay, Isidro Ruiz eta Roberto Andresek osatuko dute. Faboritoak Aretxabaletako eta Oreretako taldeak diren arren, mondragotarrek ahal duten guztia egingo dute iazko 2. tokiak hobetzeko.

# ZABALA oinetakoak



50 urtean  
elkarrekin  
ibili ondoren,  
goazen  
mendea egitera!

Erdiko kale, 18 Tel.: 943 79 14 27



Gabonetako

# LOTERIA OPARI

gure dendetan erosketak egitean

HAURRAREN  
LOTERIAREKIN  
batera  
zozkatuko da

Zorte on, eta  
Gabon  
Zoriontsuak!





# TITARE

**Barruko  
arropa  
Kortse denda  
Bainujantziak**

*Jai zoriontsuak izan!*

Olarte kalea, 6  
Tel.: 943 77 10 16  
ARRASATE



OPEL ⊕

Olentzero maitea:

**Aurten**, oso ona izan naizenez,  
ilusio handia egiten didan zerbaít eskatu  
nahi dizut:

**AUTO BAT**



baina osoo polita eta osoo handia izan  
dadila, nire jostailu guztiak, txakurra,  
gurasoak eta ahizpa sartu behar baitira,  
eta hondartzara, oporretan ... denok  
joateko modukoa izan behar da.

Eskerrik asko, egingo diguz ulako.

**URTE BERRI ON**

**ZORIONE**

TAKOLO AUTOAK



# Aizkolariak, harrijasotzaileak eta jungurilariak

Ezin Santamasik egin herri kirolak gabe. Hori dela eta, aizkolariak, harrijasotzaileak eta jungurilariak arituko dira Zaldibarko pilotalekuan. Aizkolarien artean, iaz bezala, Olsagasi eta Larretxea arituko dira, Mindegia eta Peñagari-kanorekin batera.

Iaz Fausto Mugerza aizkolari mutrikuarra aritu zen Santamasetan bost metroko altueran enborra mozten. Aurtentzen, ordea, bere semea arituko da aitarengandik ikasi duena erakusten. Ugaitz Mugerzak hamaika urte ditu. Jakin dugunez, gainera, ondo baino hobeto ikasi du aitaren ofizioa.

Zelai, Izeta eta Goenatxo II. izango dira harria jasotzen Zaldibarren. Zelaik badaki zer den Santamasetan aritzea, baina aurtentzen aurkari batzuk izango dituenenez, desafioak badauka erakargaritasunik.

Harrijasotzaile bakoitzak 150 kiloko harri zilindrikoa eta 152 kiloko harri kubikoak jasotzeko behar du, lau txandatan.



Migeltxo Saralegi izan zen iazko Santamasetan herrian.

Junguriak (errementarien ingudeak) erakustaldia da aurtentzen herri kirolen berritasuna. Lapazaran, Euskal Herriko txapelduna izango da kirol berezi hau Mondragoen erakusten. Herri kirol hau oso ezaguna ez den arren, biziki ikus-

garria da. Lapazaran 18 kiloko junguriarekin jardungo da herri kirol zaleen gozagarri. Beraz, eguerdiko 12:30etan Zaldibarko pilotalekuan arituko dira lanean aizkolariak, harrijasotzaileak eta jungurilariak. Ez galdu!

## Santamas krosa

Larunbatean, abenduak 20, izango da XX. Santamas Krosa. Deba Garaiko taldeen arteko herri proba hau eguerdiko 12:00etan aterako da herriko plazatik. 6 km. izango du ibilbidea: Portaloia, Maalako biribila, Otorra, Muxibarreko biribila, Arbolapeta, Olarte eta Portaloian zehar ibiliko dira. Lau bira eman behariko dizkiote ibilbide honi. Lehenengo sailkatuak bildotsa eskuratuko du, bigarrenak lau untxi eta hirugarrenak, berriz, bost oilasko.

Adin txikikoen krosa goizeko 10:30etan hasiko da eta adinaren arabera, hamar minutuko tartearekin aterako dira korrikalari gazteenak.



12:00etan aterako dira plazatik.

## Zergatik ez ERREGE ZUBIRAKO bidaia bat oparitu ?

MADRIL  
23.500 pta.

FUTUROSCOPE  
20.500 pta.

PARIS  
29.900 pta.



**HALCON**  
BIDAIAK

Galdetu gure eskaintza bereziaz  
Iturriotz kalea, 23, Tel.: 943 79 29 88





Karlos Ibarrondo txahala erretzen izango dugu Santamas egunean.

# Txahal errea Santamasetarako

Aurtengo Santamasek izango dute berritasun nabarmen bat. Abenduaren 22ko eguerdian Biteri parkinarean inguruan dabiltzanek aukera izango dute hemengo okelaz egindako pintxo gozoak dastatzeko. Hori

bai, ardoz ondo bustita eta musutruke.

Joan den astelehenean hil zuten Zubillagako hiltegian Arrasateko harakinek aukeratutako txahala, Pirinioetako arrazakoa. Egia esan, goitik

behera irekita 200 bat kilo duen bigantxa da, txahal emea, alegia. "Bigantxa egokiagoa da idiskoa baino", diosku Karlos Ibarrondo Elorrioko Gazeta auzoko baserritar gaztea eta bigantxa erreko duenak, "arrak

baino giharre gutxiago duela eta okela koipetsuagoa delako; jateko, beraz, samurragoa da".

Hil eta gero, bigantxaren okelak astebete izango du bere puntua lortzeko.

**ESKIÑA  
taberna**

**Zorionak eta ondo ibili Santamasetan!**  
Olarte, 25 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 79 20 20

**Takoi**

ZAPATA KONPONKETAK  
GILTZEN KOPIAK

Kalealdeia, 2 beheia (Larreko etxeak)  
Tel.: 943 79 84 95

**LONTXO  
TABERNA**

Olarte, 12  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 14 91

*Aupa Santamasak!*



**GAZETAKO KOFRAIXAK**

Lehen aldia da txahal errea prestatzen dela horrela Arrasaten. Egia esan, Karlos Ibarondo elorriarrak jarri du boladan Euskal Herrian barrena. Gazeta auzokoa da eta, esan digunez, 1614ko liburu batean jasota dago nola Gazetan urtero bi txahal erretzen ziren Kofradia egunean, elizako gastuak ordaintzen laguntzeko, besteak beste. Zenbait urtetan galduta egon eta gero, orain hogeita hamar bat urte hasi ziren berriro txahala erretzen, festa giroan. Berak hantxe ikasi zuen erretzeko teknika eta horixe da orain herriz herri erakusten ari dena.

“Dena behi eroen izurritea azaldu zenean hasi zen”, dio Karlosek, “harakin euskaldunak hasi ziren hemengo okela bultzatu guran eta deika hasi zitzaizkidan, jaietara joateko”. Aurten 29 herritan izan da txahala erretzen. Arra-

**Bigantxa burduntzian**

- **Pisu gordina:** 400 kg.
- **Pisu garbia:** 200 kg.
- **200 kg** egur ikatza.
- **12 ordu** erretzen.
- **1.200** pintxo.
- **8 harakin** zerbitzen.



satekoa 30.a izango da. Ondoren Elogoibarren txanda etorriko zaio. “Euskal Herriatik kanpo ere izan naiz: Salamanca, Ciudad Realen (350 lagunentzako ezkontza batean izan nintzen) eta Jerez de la Fronteran, hain zuzen”. Komunikabideetan agertzen hasi zenetik, gero eta toki gehiagoetatik deitzen diote.

**ARRASATEN**

Arrasatera 21ean etorriko da, gauean. 200 kilo egur ikatz ekarriko ditu eta gauerdian sua piztuko du Biteri parkinean. Guztira hamabi ordu egon behar du bigantxa txingarretan. “Jende asko harritu egiten da suak duen indar eskasarekin. Kontua da barrua egitea, baina kanpoko erre barik. Horre-

gatik, astiro eta soseguz egin behar da lan. Teknika berezirik baino, pazientzia behar da lan honetan”.

Lehen sei orduetan bigantxa txingarretan egongo da eta orduerdiro buelta emango dio, besterik barik. Azken sei orduetan, berriz, zulatu egingo du eta, bueltak emateaz batera, ardoa, gatza eta likoreak botako dizkio.

Hamabi orduren bueltan, dena prest izango da okela pintxotan zerbitzatzeko. Arrasateko harakinak arduratuko dira horretaz. Euskal Okela egitasmoaren barruan lan egiten duten zortzi harakin izango dira. Eurek zatituko dute bigantxa eta prestatuko dituzte 1.200 inguru pintxoak. Ogi zati batekin zerbitzatuko dira, ardo, txakoli edo sagardoaren laguntzarekin.

Bada modu hoberik hemengo okela ezagutarazteko?

- *Karta eta eguneroko menuak*
- *Bakailaoan espezializatuak*

**Zubaitz**

J A T E T X E A

*Berriz ere zabalik!!**Astelehenetan itxita*

Rosario, 4 LEINTZ-GATZAGA Tel.: 943 71 54 94



# Programazio berezia Santamasetan

Arrasate Irratikoek programazio berezia antolatu dute Santamasetarako, ohiko programazioa alde batera utziz. Astelehenean, hilak 21, Santamasesen inguruko programa berezia izango da goizeko 09:00etatik 11:00etara.

Santamasesun, berriz, kalera irtengo dira, kaleko giroa uhinen bidez gure etxetara ino eramateko. Elkarriketak, kale inkestak... hitz batean, kaleko jendea eta giroa izango dira nagusi Santamasetako egun handian, goizeko 10:00etatik 12:30era.

Asteazkenean aurreko eguneko bixamona gozatzeke, 09:00etatik 11:00etara urteko erreposoa egingo dute Arrasate irratikoek, Euskal Herri, Espainia eta nazioartea aztertuz.

Ostegunean 09:00etatik 10:00etara jada bukatzean dagoen 98aren erreposoa egingo dute, baina oraingoan Arrasaten gertatu denaren berri emanaz. 10:00etatik 11:00etara, aldiz, Gabonetako programazio berezia izango da. Beraz, irratian ere Santamasesak nagusi.



Arrasate Irratia kalean izango dugu Santamasesun.



**ALDAPE**  
Taberna

Espezialitatea:  
menua - karta

Iturriotz, 41  
Tel.: 943 79 70 41  
ARRASATE

**EKLIPSE**



Arropak, tatuajeak,  
piercing-ak,..

Biteri Etorbidea, 15  
Tel.: 943 77 02 69



**Elizondo**  
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99





# LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZARI ESKER, HOBETUZ GOAZ

ALTZARIAK: Zerkaosteta, 2 • Tel.: 943 79 30 10  
JANTZIDENDA: Zerkaosteta, 1 • Tel.: 943 79 13 55  
UMEEN JANTZIDENDA: Zerkaosteta, 7 • Tel.: 943 79 86 14  
APAINKETA: Zerkaosteta, 1 • Tel.: 943 79 27 27



*Zorionak eta  
Urte Berri On,  
Arrasate!*



## GABON ZAHARREKO KOTILIOIA

*Urdaiazpikoa eta Solomo Iberikoa  
Lainzuriak bi saltsatan  
Fecie Hotza Sagar Purcarekin  
Vicira Txangurroz Betea  
Otarraintxoak Plantzan*

*Saldia Jerezeko Ardoan  
Kantauriko Legatz Gorenak Arrainparrilan*

*Solomillo Zentrua Bere Lagungarriekin Erricxa Ardo  
Erara*

*Banilla Tzozkidun Tarta eta Masusta Gorriko Couliak*

*Gabonetako Turroi Aukera*

*Ardoak: Etxeke Krianza Beltza  
Gran Feudo Chivite Ardo Gorria  
Cava: Bossuet  
Kafea*

**Dantza: Ongi etorri 1999**

*Prezioa: 8.750 pta. (BEZa barne)*

ABENDUAREN 21EAN, SANTAMAS AFARIA MENU EDO KARTARA

ABENDUAREN 22AN, SANTAMAS BAZKARIA (BABAJANA)

  
**HOTEL  
MONDRAGON**  
\*\*

Biteri Etorbidea, 16  
Tel.: 943 71 24 33



## ■ ATBren programazioa

### LARUNBATA, 19

13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Musiklasik, Aurrez-aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebete.

### IGANDEA, 20

13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Musiklasik, Aurrez-aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebete.

### ASTELEHENA, 21

13:30 Albiste aurrerapena  
20:00/20:30/21:00 Berriak.  
21:30 Mondrasport  
Itxaro Zubillagak aurkeztuta.

### ASTEARTEA, 22

13:30 Santamasak 97, pasa den urteko Santamasen errepika.  
20:00-21:00 Santamasak 98 programa berezia Unai Loidik aurkezturik.



Unai Loidi

### ASTEAZKENA, 23

13:30 Santamasak 98  
20:00-21:00: Santamasak 98

### OSTEGUNA, 24

13:30 Santamasak 98  
20:00 Olentzero eta Txoronpioren etorrera  
Arrasatera.  
20:15 Santamasak 98  
24:00 Amaiera.



Olentzeroren etorrera

### OSTIRALA, 25



Eguberri eguna dela eta, ostiralean ez da programarik izango. Ondo pasau!

# ARIANE

Barrutik dotore  
janzteko ARIANEn  
duzu aukera  
zabalena

*Gabon  
zoriontsuak  
eta  
Urte berri on!*

**Erdiko Kale, 14  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 27 33**





**ETXEBIZITZAK**

**1. Saldu**

• Etxea, bi autorentzako garajea eta ganbara salgai. Matxiategin (Bergaran). Tel.: 943 76 08 51.

• Etxebizitza salgai Osintxun. 75 m<sup>2</sup> koa eta egoera onean. Tel.: 939 936 841 (Julenez edo Martaz galdetu).

**2. Erosi**

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. 100m<sup>2</sup> ingurukoa eta egoera onean. Tel.: 943 79 21 46.

• Etxea erosiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 38 01 (Olatz).

**4. Errentan hartzeko**

• Lau gazte gara gure autogestiorako nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustura hartuko genuke berrizteko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 09 (Itziar).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 20 20 (Iker).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 46 61.

• Ikasle talde batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 36 35 (Iker).

• Etxebizitza alokairuan hartuko nuke. Tel.: 908 87 85 07 (Aitziber).

• Etxebizitza alokairuan hartuko nuke. Tel.: 943 79 64 04.

**5. Etxeak osatzeko**

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gauez deitu.

• Logela bat behar dut ikaslez osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

• Alokairuan hartuko nuke etxebizitza bat edo logela bat. Tel.: 943 18 03 78 (asteburuetan) eta 943 76 55 67 (asteazkenetan).

• Etxebizitza edo logela behar da Arrasaten. Tel.: 943 79 59 60 (lan orduetan).

• Bi langilek beste lagun bat behar dute Arrasaten dagoen etxebizitza osatzeko, Erguin auzoan (bakoitzak bere logela). Tel.: 943 77 15 67.

**ETXEBIZITZAK**

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



**943 77 05 65**

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Gela bat alokatzen da Arrasateko erdi aldean. Tel.: 943 79 87 59.

• Bi mutilek pisu merke bat alokatuko genuke. Etxebizitza osatzeko ere prest egongo ginateke. Tel.: 943 79 89 73.

**GARAJEAK**

**7. Saldu**

• Lonja salgai Urriburu kalean. Tel.: 943 79 45 58.

• Garajea salgai Munarreko plaza azpian. Tel.: 943 79 44 07.

**9. Errentan emateko**

• Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

**LOKALAK/ORUBEAK**

**12. Saldu**

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala

salgai. Tel.: 943 79 07 24.

**14. Errentan emateko**

• Garajea alokagai. Musakola aldean. Tel.: 943 79 37 38 (eguerdientan).

• 75 m<sup>2</sup>ko lonja bat alokagai Anboto kalean. Tel.: 943 79 98 07.

**15. Errentan hartzeko**

• Taberna alokatuko nuke Arrasaten, Aretxabaletan edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 / 930 44 46 58.

• Lagun talde batek garajea edo lonja alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 69 64 (Xabier) edo 943 79 61 44 (Dani).

**LANA**

**17. Eskaintzak**

• Turismoan lizentziadunak (euskarra eta ingelese daki) bidaia agentzia batean eta antzekoetan lan egingo luke. Tel.: 943 76 37 80.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko edo pertsona nagusiei konpainia egiteko. Tel.: 943 71 53 74 (goizean edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera).

• 27 urteko neska prest legoke haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Taberna batean ere lan egingo luke. Zortzi urteko esperientzia du. Tel.: 943 77 08 13 (M<sup>a</sup> Carmen).

• Eperientzia handiko emakumea prest dago arropa konponketak, sukaldeko edo plantxa lanak egiteko, orduka. Tel.: 943 79 59 43.

• Psikologoak laguntza emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

• Italiar lizentziatua italiarako eskolak eta itzulpenak egiteko gertu. Tel.: 943 76 65 24.

• Lanak, apunteak eta mota guztietako dokumentuak ordenadorez pasatzen ditut. Tel.: 943 79 07 64 eta 919 605 606 (Fran).

• Tabernak, atariak, dendak... garbituko nituzke. Tel.: 943 79 94 20 (Camila).

• Andra bat prest pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskalduna. Tel.: 943 77 04 60 (Margari).

**18. Eskaerak**

• Emakumea behar da arratsaldeetan 6 eta 8 urteko umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 65.

• Aramaioko taberna batek zerbitzaria behar du asteburuetan. Tel.: 945 44 50 86.

• Aramaioko taberna batek garbitzailea behar du asteburuetan. Tel.: 945 44 50 86.

• Sukaldari laguntzailea behar da taberna batean, asteburu gauetan lan egiteko. Tel.: 943 79 11 25.

• Pertsona bat behar da Arrasateko taberna batean lan egiteko. Utzi telefonoa eta izena erantzungailuan eta deituko dizugu. Tel.: 943 77 11 92.

**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

• Margo eta marrazki artistikoko eskolak ematen dira. Tel.: 943 79 19 23 (eguerdian edo gauean deitu).

• Matematika, fisika, kimika eta marrazketako eskolak ematen dira. Tel.: 943 79 36 35 (Aitziber).



## 21. Eskaerak

• DBH 4. mailako ikasle batek matematikako eskolak hartuko lituzke larunbatetan, 10:00etatik 12:00etara. Tel.: 943 79 93 07.

• Ingeniaritzako lehen kurtsoko bi mutil zientzia irakasle baten bila gabiltza (fisika, kimika, matematika, kalkulia). Tel.: 943 79 959 52 (20:00etatik aurrera).

• Amerikar batek gaztelaniazko eskolak hartuko lituzke. Tel.: 943 79 77 28. Gauzez deitu. (Marta).

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Nissan Vanetta furgoneta salgai. V-M. Merke-merke. Tel.: 943 79 58 29.

• Peugeot 106, 1.100 injection salgai. 93 urtekoa. 70.000 km. 650.000 pta. (negoziatzekoak). Tel.: 607 86 16 98

• Yamaha salgai, 93koa. Egoera onean. 350.000 pta. Tel.: 943 79 78 36

• Fiat 1 turbo salgai. 118 cv, 91koa, 90.000km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50 (Jesus).

• Peugeot 306 XSI salgai. 2000cc<sup>3</sup> 2 ate, aluminiozko llantak, 70.000 km. Merke. Tel.: 943 79 78 32.

• Citroen BX batentzat 170/65 R 365 kubiertak eta suspentsio esferak salduko nituzke oso merke. Tel.: 943 79 04 39. (denda orduetan).

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Bulegorako altzariak salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 84 35.

• Flex markako literak salgai. Egoera onean. Prezioa 30.000 pta. Tel.: 943 79 57 64.

• Argazki makina salgai. Minolta X-300. Tamron 28-200 objektiboa. Starbiltz flash-a. Tel.: 943 88 16 08. Arratsaldean edo gauzez.

• Bebe-Confort markako ume kotxea salgai. Euritarako plastikoa dauka. Aulki estalkia ere bai. Tel.: 943 79 38 16 (10:00etatik aurrera) Idoia.

• Mahai tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 18 50 (Sole).

• Alpha markako fly berde bat salduko dut. Tel.: 943 79 54 14 Julen.

• Trabesiako eski ekipoa salgai. Eskiak: Castle Tour Montagne, 1,80 cm. Fijazioak: Silvretta 404. Botak: Dahstein, 39 zbk. Tel.: 943 79 38 01 (Olatz).

### 27. Erosi

• Zerrajerako egurrezko berogailu zahar bat erosiko nuke. Tel.: 943 79 11 24 (Ramon).

• Musikako disko singelak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

### 29. Eman

• SOS. Ijitoek mantak behar dituzte. Laguntzeko prest bazaude, eman itzazu Zaldispeko parkinera edo Jai zale tabernara 15:00etatik aurrera. Eskerrik asko.

• Egoera onean dagoen eta 90 zm. ko luzera duen ohea (koltxoirik gabe) eman nahi dut, eta baita lanpara bat ere. Tel.: 943 79 68 57. Deitu goizetan. (Teresa).

### 31. Galdu

• Urrezko eskuturreko bat galdu dut, azaroaren 27an, Arrasateko erdi aldean. Lau izen daramatza grabatuta. Inork aurkitu badu, deitu, mesedez. Tel.: 943 79 52 08.

### 33. Bestelakoak

• Arrasateko Bilbora joan-etorria egiteko autobusa jarriko da. Goizeko 07:30etan irtengo da eta arratsaldeko 17:30etan itzuliko. Tel.: 943 79 01 00 (dei egin goizeko 09:00etatik 17:00etara. (Pedro Bideguren).

### 35. Harremanak

• Kaixo, Xabi naiz eta 33 urte daukat. Mendia eta eskia gustatzen zaizkit. Sexu harremanak izan nahi nituzke adin antzeko batekin. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zenb. CDP. 20560 Gipuzkoa. Nire aldetik, erabateko zuhertasuna.

**LOS VAQUEROS**  
Zerkaosteta, 5 • 943 79 97 55

**LOS TEJANOS**  
Hiper-Eroski • 943 79 80 36

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

*Zubizaneta*



**GALERIA 44**

*Gabonetako oparirik onenak*

Zerkaosteta, 8 Tel.: 943 79 90 50 • ARRASATE

**ETXERAT TABERNA** ZURGIN KANTOI, 5  
TEL.: 943 79 20 52  
ARRASATE

**EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!**





**L** 959 edo 1960. urteko argazki honetan, Alfonso X.aren domina ipintzen ari dira herriko banderaren. Julio Otadui Riviere eta Joakin Etxeberria zinegotzia dira bandera eusten ari direnak. Orduko Gipuzkoako

gobernadorea izan zen Jose María Gómez del Moral jauna da, berriz, domina banderaren ipintzen ari dena.

Domina hau, Espainian kultura arloan orduan ematen zen saririk garrantzitsuena zen. Berez, On Jose María Arizmendiartetari ipini nahi izan zio-

ten Mondragoen alde eginiko lanagatik. Baina On Jose Mariak, Mondragoe herriak laguntasun handia eman ziola eta, zela domina merezi zuena esan zuen. Azkenean, On Jose Maria Arizmendiartetari domina bat eta herriko banderari beste bat jarri zitzairen.

-----  
**Argazkia:**  
 Arrasateko Udala  
**Berriematea:**  
 Jose Maria Uranga Arregi

*J. Markiegi.*

*Gizonezkoen moda*

Olarte, 2  
 Tel.: 943 79 15 32

URTE BERRI ON!



A R R A S A T E





**LOREA**  
zure paxpala  
begikoerari

**PEPE**  
Añietokada  
Paxpala  
Komasu baita

**PATXI**  
Aurrelari  
onena

**AMARENZAT**  
Txapeldun!!

**AGURZANE**  
Edur asko,  
asko eta  
asko...

**Alta**  
mude zaitzugu!

**AMA:**  
zure  
eta

**LAGUN**  
Zuretzat egiteko  
beturrekoak

**INSTITUTO OPTICO**

**opariak begibistan...**

**...edo zure begietarako opariak**

*Olentzero eta Erregeak beturrekoekin datoz.*

**Kalitatea saltzen dugu.**

**INSTITUTO OPTICO**  
Erdiko kale, 22  
20500 **ARRASATE**  
943 79 71 68

**INSTITUTO OPTICO**  
Hiper Eroski  
20500 **ARRASATE**  
943 79 78 26

**OPTICA GARAGORRI**  
Iturriotz, 29  
20500 **ARRASATE**  
943 79 16 98

**INSTITUTO OPTICO**  
Andra Mari, 8  
48200 **DURANGO**  
94 6202986

**INSTITUTO OPTICO**  
Grupo San Ignacio, 3  
48200 **DURANGO**  
94 6818492

**INSTITUTO OPTICO**  
Erdiko kale, 21  
20830 **MUTRIKU**  
943 60 31 54



**Ftxe**  
mobiliario y  
decoracion

- PROIEKTUAK
- BARNE-DISEINUA
- LANAK

***Zeure estilora egokituta,  
altzari klasikoak eta modernoak.***

*Ferrerías, 17 (Alde Zabarra) • Tel. eta faxa: 943 79 03 17 • ARRASATE*



# PRIMERAN

ibiliko zara

# ZATOZ

Focus Tour autoa  
piezaz pieza nola egiten den  
ikustera eta probatzera.



focus

Abenduaren 22an eta 23an  
gonbidatzen zaitugu  
Maiatzaren 1. enparantzan (San Andres auzoa)  
goizeko 09:00etatik arratsaldeko 21:00etara



DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO  
OFIZIALA

**MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • TEL.: 943 79 07 44

